



Bidearen lagunak

Sakanako Donejakue Bidea sustatzeko asmoz lanean ari dira / 2-3



Sakanako Mankomunitateak Sakanako kirolari onenak sarituko ditu gaur Irurtzunen / 12-13

Lakuntza, Arbizu eta Altsasuko udalek foru aurrekontutatik zuzenean dirua jasoko dute / 5

Etxarri Aranazko eskolako jantokiak Ministerioaren 'Aparteko Jantokia' aitortza jaso du / 9

Lakuntzarrek harrera beroa egin zioten euskara taldeak argitaratutako liburuari / 6

Ziordiarrek Santa Luziari eskainitako festekin jai giroa izanen dute asteburu guztian / 8

Izaskun Beunza olaztiarra, Nafarroako Kros Laburreko txapeldun handia San Adrianen / 17

Altsasu Kirol Elkartearen aurkezpena: 18 talde, 310 jokalaria eta futbol gose handia / 18-19



Diabolus in Musica eta Sakanako ahotsak elkarrekin "berezia" izango den kontzertuan / 22-23



Sakanako Donejakue bidearen ibilbidea. SGA

Segi Sakanako gezi horiei

Ibarrekoa Nafarroako bosgarren Donejakue bidea izendatu zuen foru gobernua. Bidea seinaleztatuta dago eta erromes batzuk pasatzen hasi dira. Sakanako Donejakue Bidearen lagunek sakandarren artean bidearen berri eman nahi dute

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bospasei sakandarrez osatutako aurreneko taldeak ibarreko bidea ibili zuten "erromatar galtzada nondik pasa zitekeen kontuan hartuz". 2014 inguruan izan zen. Ibarreko erakundeek babesa opatu asmoz, pertsona haiek Sakanako Garapen Agentziarekin (SGA) harremanetan jarri ziren. Ordurako helburua garbi zuten: Sakanako Donejakue bidea berreskuratzea. Eta elkarlanean hasi ziren, "gauzak ongi egiteko". Hasteko ibilbide bat behar zen, eta jatorrizko bidea zen erromatar galtzada agerian ez zegoenez, ibilbide bat osatu zuten. Horretarako, enpresa bat kontratatu zuen SGAk, eta hango langileak, boluntarioek eta SGakoek Sakanan aurrera eta atzera ibili ziren, ibilbidea osatu arte. Eta hainbat irizpide kontuan izanda,

ibilbide bat zehaztu zen, gaur egungo Donejakue bidea dena. Kontuan izan zituzten irizpideen artean daude: ahal zen neurrian aintzinako ibilbidea mantentzea, ekonomian eragina izateko bideak herriak lotzea, udal eta kontzejuek berreskuratutako bideei balioa ematea eta Donejakue bidea handik eramatea, mugarri diren eraikinak lotzea (Itxasperri, Zamartze, Bakaikuko Santiago ermita...)... Ibilbidea 2016rako definituta zuten. Urte hartako abenduan Sakanako Mankomunitateak oniritzia eman zion.

Horrekin foru administrazioa jo zuten. Turismo eta kultura arduradunekin harremanetan jarri ziren. "Kosta zitzaigun aitortza lortzea, bide luzea egin behar izan dugu. Eta ez zen erraza izan, ate asko itxita opatzen genituelako", nabarmendu dute.

Nafarroako Gobernuaren Turismo Departamentuan zalantzaz ikusten zuten, "bide berri bat asmatzen ari ginelakoan zeuden hasieran". Nafarroako bosgarren bide gisa izendatu zuen. Baina ibarreko bidearen berri jasoa zegoen: "bakarren batek bide txikiagoen inguruan zerbait idatzia zuen. Txikiagoa izan zitekeen, baina Historia ezagutzen duzue: Zamartze erromesen ospitalea izan zitekeen, Zamartzen aurreko hamarkadan Aditu enpresak egindako arkeologia indusketetan erromes maskorrak zituzten gorpuzkiak agertu ziren, erromatar galtzada bertatik pasatzen zen..." Argi dago egungo Frantsez Bidearen aurrekoa dela. "Sakanako bideak balio garrantzitsua du Historiagatik, erlijioagatik eta kulturagatik", azaldu du kideetako batek. Nafarroako

Gobernuak Sakanako Donejakue Bidea bazela duela hiru urte onartu eta ofizialdu zuen.

Iruñetik Irurtzunera inoko bidea Plazaola bide berdea erabiliz egiten da gaur egun, "zeren Oskiatean oinezkoendako tokirik ez dago eta oso arriskutsua litzateke jendea handik ibiltzea. Ibilbidea zehazterakoan lehen-tasunezko irizpidea segurtasuna izan zen". Ziordian Lautadako bizikleta bidea hartzen da Zal-dondoraino. Han barrualdeko euskal bidearekin bat egiten du.

Seinaleztapena

Aitortza iritsi bitartean bidea seinaleztatzea beharrezkoa zela ikusi zuten, "Sakanako Donejakue bidea egin nahi zuen jendea gal ez zedin". Sakanako Donejakue bidea 2019an seinaleztatu zuten. "Baina ez genuen gezi horirik pintatu. Batetik, sakandarrek bidearen berri ez zutelako, eta edozeinek gezi horiak margotzen has zitekeelako". Bestetik, Nafarroako Gobernuak 2019an oraindik bidea aitortu ez zuenez, seinaleztapen ofiziala ezin zuten erabili. Beraz, Sakanako Donejakue bidearen norabidea adierazteko seinale bereziak sortu zituzten. Alde batetik, aluminiozko txapa urdin batzuen gainean gezi horia pintatua duen seinalea. Eta, bestalde, logotipo bat sortu zuten bi edukirekin: bidearen ikurra den maskorra eta Sakana markaren haritz hosto kolore-

duna. SGak 2019an jarritako seinale horiek gaur egun seinale horiek Irurtzun eta Ziordia artean ikus daitezke.

Seinale horien mantentzeaz taldeko boluntarioak arduratu dira. Seinaleztapenaren mantentze lana egiteko, esaterako, taldeko kideak bikoteka-edo antolatuta daude eta bakoitzak bide zati baten mantentzeaz arduratzen da. "Boluntario horiek bide tarte horren begiak dira". Haiek dira gaztigatzen dutenak seinaleak falta ote diren, erori direla... Altsasu aldeko boluntarioek, bere ekimenez, seinaleen ondoan maskorrak jarri zituzten, "beraien ukitua eman zieten seinaleei".

Ibarreko turismo webgunean, sakana.eus, ibarreko Donejakue Bideari buruzko informazio atala dago. Bere edukien artean daude ibilbidea, seinaleen eta zerbitzuen berri ere: Sakanara garraio publikoan nola iritsi, non lo egin, alojamentuak, jate-txeak eta abar.

Gainera, Sakana bi bide sareren bidegurutzea bihurtu da. Alde batetik, aipatutako Donejakue bidea dago. Eta, bestetik, Aralarko santutegitik San Migel

"SAKANAKO BIDEA GARRANTZITSUA DA HISTORIAGATIK, ERLIJIOAGATIK ETA KULTURAGATIK"

TALLERES GOÑI TAILERRAK

AKABORRO II INDUSTRIALDEA • IRURTZUN

- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua

680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

Santutegien eta Bideen Europa-ko Sarea sustatzen ari dira. Beraz, Europako bi bideek Uharte Arakilen bat egiten dute. "Denondako onura da". Bestetik, aurreratu dutenez, 2027a Done Jakueren urtea da.

Sakanan ezezaguna

Boluntario taldeko bakarren batek Historia zaletasunagatik zekien bidearen berri. Askok Zamartzen egindako arkeologia indusketen ondoren jakin zuten Donejakue Bidea Sakanan zegoela. Bidea aitortu ondoren, Nafarroako Gobernuak bere turismo euskarrietan jaso du. "Lehen ez bezala, orain mapan gaude. Baina orain erronka bidearen sustapena egitea da", azaldu dute. "Baina ez kanpora begira. Zeren sakandarrek ez dute ibarreko Donejakue bidearen berririk. Kanpo sustapena egin aurretik, garrantzitsua da sakandarrek bidearen berri izatea. Zeren erromes edo bidaiariren bat baletor eta sakandarren bati bidearen inguruan galdetu eta ideiarik ez balu, gaizki". Sakandarrek bidearen ibilbideaz eta bere jatorriaz jakiteari garrantzia handia ematen diote taldekideek. Hori egin bitartean ibarretik kanpo bidearen sustapena ere egin behar dela uste dute.

Sakanan barna bidea egiten ari diren erromes eta bidaiariak badaude. "Tantaka etortzen dira". Hiriberri Arakilgo landetxe handi baten atean pare bat aldiz jo

izan dute ostatu hartzeko, baina pertsona bakarrarendako etxe handi bat zabaltzea eta neguan berotzeak ez dienez merezi ez dute zabaldu. Zamartzen batzuk hartu izan dituzte. Gehienak oinez etortzen dira, bakarren bat bizikletan. Argitu dutenez, orain Santiago de Compostelara joateko bidea parean dugunez, edozein sakandar etxetik zuzenean abiatu daiteke.

Ekarpena

Kide batek azaldu duenez, "gaur egun Donejakue bideak Sakanari gutxi ematen dio. Ez dago azpiegiturarik. Gurpil zoroa da. Bidaiariak etortzen ez badira zeinek jarriko du, esaterako, taberna bat. Baina zerbitzurik jartzen ez badira, nola etorriko da jendea. Gaur egun martxan jartzeko dugun arazo handiena hori da". Beste batek esan duenez, "momentuz, bideak lana ematen digu, orain arte urte askotako lana izan da". Aldamenetik besteak, "nola aldatzen duzu egoera benetan indar pixka bat har dezan?"

Sakanako ibilbidea zehaztuta dago, "baina berez erromesendako diren aterperik oraindik ez dago, halako bidaiari asko ez daudelako". Uharte Arakilgo Itesi-azuloan erromesendako aterpean zabalduko da heldu den urtean. Oinezkoendako eta bizikleta bide sarean dabilzanendako izanena da. "Pittea gaur egun ez ditugun azpiegiturak iritsiko dira", au-



Sakanako Donejakue Bidearen lagunetako batzuk Zamartzen. UTZITAKOA

rreratu dute. Bitartean Arbizuko eta Etxarri Aranazko kanpinetan aterpe bana daude eta erromesak edo bizikleta bide sarean dabilzanak har ditzakete. Baita Zamartzen ere. Inoiz talderen bat Iturmendiko apaiz etxean izan da. Halako bidaiariak aterpeak eskatzen dituzte. Bestela hotelak eta hostalak badaude.

Boluntario taldea

Sakanako Donejakue Bidearen lagunak gaur egun dozena bat inguru sakandar dira. Batzuk hasieratik daude, beste batzuk utzi egin zuten, baina berriak sartu dira. Orain arte bakoitzak bere arlotik ekarpena egin izan du: elizatik, turismotik, ondarearen eta Historiaren berreskurapenetik... Denetariko jendeak bat egin du. Lagunek beraiek Sakanako bidea ezagutzeko ibilaldiak egin zituzten, etapaka. Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkartek ere antolatu izan ditu. Ibarreko bidearen berri emateko Sakanako Donejakue Bidearen lagunak ere hainbat ibilaldi antolatu izan ditu.

Oraindik ez dira elkarte gisa eratu. Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkartekoek proposamena egin zieten: "Sakanan elkarte sortu aurretik, Nafarroakoaren barruan Sakanako taldea sortzea proposatu ziguten, haren baitan autonomia dena". Azaldu dutenez, "gure elkarte sortu aurretik, martxan jartzeko modu errazagoa da". Helburua da ibarrean Donejakue Bideko

Lagunen Elkartea sortzea etorkizunean. "Beste elkarte batzuk horrela sortu ziren lehenago. Nafarroakoan bazkide asko dira eta ongi datorkigu", azaldu dute.

Elkartea sortu ahal izateko sakandar gehiago erakarri nahi dituzte taldera. "Egituratu eta muskulua hartu nahi genuke, nolabaiteko egitarau bat lantzeko. Esaterako, hitzaldiak antolatu, bidea ezagutzeko martxak antolatzea... Mahai gainean hainbat ideia daude. Baina horiek egiteko taldea egonkortu eta indartu behar da". Sakandarrek dagoeneko bide bat egin dute. Taldea indartzeko Nafarroan dauden Donejakue Bidearen Lagunen elkartek ezagutu nahi dituzte. Besteak beste, Baztanen, Iruñean, Garesen eta Tuteran daude elkarteak. "Haiek nola indartu ziren eta elkarte gisa nola eratu ziren" jakiteko eta ikasteko. Garesko elkartekoekin apirilean egon ziren. Baztango elkarteak ere ezagutu nahi dute orain. "Pittea Nafarroako elkarte guztiekin bildu eta haien ibilbidea ezagutu nahi dugu. Gu gauden lekutik aurretik pasa dira eta zer egin duten jakin nahi dugu".

Gonbidapena

Sakanako Donejakue Bidearen lagunak azaldu dutenez, Sakanako Donejakue Bidearen lagunak "talde irekia da, edozeinek parte har dezake. Hasieran lau katu geunden taldean, eta pittea indarra hartzen ari da taldea. Jendea gauzak egiteko gogotsu

dago". Taldekideek sakandarrak taldean izena ematera eta hura indartzera eta zabaltzera animatu dituzte: "historia gustuko duten pertsonak izan daitezke, tartetxo bat libre duten pertsona horiek eta zaleak direnak... Ez da aditua izan beharrik. Bakoitzak bere gaitasunak ditu, eta denbora gauza baterako edo besterako eskaini dezake". Taldearekin harremanetan jarri nahi duenak donejakuebideasakana@gmail.com posta elektronikoko helbidera mezua bidal dezake. Kide berriei ongi etorria egingen diete.

Sakanako bidearen jatorriaz

Erromatarrek Iler XXXIV galtzada I. mendean eraiki zuten. Erromatar galtzada Bordele eta Astorga lotzen zituela, hau da, Galia eta Astorga ondoko Meduletako urre meategiak komunikatzen zituen. Galtzada hori Orreagatik Iruñera joaten zen eta Sakanara Oskiatetik sartzen zen, ibarra zeharkatu eta, esan bezala, Astorgaraino joateko.

Zortzi mende pasata, erromesek galtzada hori bera Santiago de Compostelara joateko erabiltzen hasi ziren. Erromesek Sakanako Donejakue bidea IX. mendetik XI. mendera arte erabili zuten. Gaztelak Nafarroako Erresumaren kontrako inbasio borrokak egin zituen 1199-1200 urteetan eta Araba eta Gipuzkoa haien esku gelditu ziren, Sakana "gaizkileen muga" bihurtuz. Nafarroako Antso Nagusia erregeak erromesek Iruñetik hegomendebalderantz bideratzea erabaki zuen, Gares, Lizarra eta Vianatik Logroñora jo zezaten. *Frantziako bidea* horrela jaio zen. Hark erromesen segurtasuna hobetu zuen, haien pasaera erraztuz. Erromesek Nafarroan barna bide luzeagoa egin behar zutenez, bide berriak onura sozioekonomikoak ere ekarri zizkion Nafarroako Erresumari. Horren guztiaren ondorioz, ibilbide nagusi hori ibilbide txiki bihurtu zen, eta, denborarekin, bide zaharra ahaztuta geratu zen.

Hitzaldia

Aditu arkeologia zerbitzuak enpresako Fran Valle de Tarazaga Montero Zamartze monasterio inguruko arkeologia indusketak zuzendu zituen sei bat urtez. Sakanako bidearen lagunak aurtengo lana despeditzeko, Valle de Tarazaga arkeologoa Zamartzera bueltatzera gonbidatu dute. Abenduaren 20an, larunbatarekin, 10:30ean *Un hospital en el camino de Santiago en Sakana* hitzaldia emanen du. Han egindako indusketetatik ateratako aztarnak Sakanako Donejakue bidearekin lotuko ditu.



ASTEKOA

ERKUDEN ALDASORO ERREA

Behin eta berriro

Behin eta berriro, bolo-bolo dabil bullying-a, guztion ahotan. Kasu bat izan da azkenotan, guztioi akaso zerbait eragin diguna, gure arreta bereganatuta. Neska nerabe bat, Sandra, jazarpena jasaten ezin jarraitu, mundu honetatik alde egitea hobe zuela pentsatu eta horren arabera jokatu zuena.

Ezin dugu asmatu zehatz-mehatz zer izango zuen buruan neskatala honek, baina galdetu diezaiokegu geure buruari zein diren desastrerako faktoreak halako kasuetan, eta zergatik errepikatzen diren horrelako kasuak nahi baino gehiagotan. Eta zertan saia gaitezkeen ikusten, pentsatzen, eragiten, gehiagotan errepika ez dadin.

Daturik argiena: horrelako kasuak ia beti hasten dira ikaskide, kirol-taldekide edo antzeko baten edo batzuen burlekin, hitzezko jazarpenekin edo jazarpen fisikoekin. Baina ez beti. Izan daiteke

jazarpen aktiborik ez izatea, eta besterik gabe norbait bazter uztea. Inork ez du egiten pertsona horren kontra, baina inor ez da harekin elkartzten.

Askotan ahazten zaigu zer garrantzitsua den taldearen parte sentitzea. Denontzat, baina bereziki nerabeentzat. Zenbat aldaketa jasaten ari diren eta zer hauskorra den haien autoestimua, eta zeinen erraz lotsatzen diren. Lotsa horrek errua sor diezaieke, eta errua, batez ere barnerantz bideratutako errua, haien barneko etsai nagusia bilaka daiteke aise.

Jazarpena jasan edo jasaten

duten lagun asko sinetsita egoten dira beraiena dela errua, jazarriak direla beraiek zerbait egin dutelako, eta horrek eragin dezake inori ez kontatzea. Edo kontatzea denbora asko pasa ondoren, jazarpen-egoeratik atera direnean. Halako zerbait ez partekatzeak sortzen duen mina ere eramatea bizkarrean.

Nago helduok (irakasle, guraso eta oro har ingurukook) zerbait egin dezakegula laguntzeko. Hasteko, erne egotea. Arretaz begiratzea aldarte-aldaketa txiki eta ez hain txikiei, adibidez. Eta babes-eremuak eta konfiantzazko erlazioak eraikitzea. Ez da erreza, batzuetan helduok hala jokatu ere ez digute kontatuko, baina saia gaitezke, saiatu behar dugu. Behin eta berriro gertatzen dena gero eta gutxiago gerta dadin.



www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Laura Olmos Aristorena
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Maider Perkaz Urdiain
maider@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores

Kolaboratzailea:
Jose Luis Erdozia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200



OBJEKTIBOTIK



Maketa alturan

Lehenik San Sebastian ermitaren maketa jarri zuten Olatzagutia eta Ziordia lotzen dituen dermioko bide bazterrean. Garai bateko

argindar sareko poste zahar baten gainean jarri ere. Oraingoan metro batzuk harago Ziordiko Mirariko Andre Mariaren ermitaren

maketa da jarri dutena. Aurrena bezala, hori ere, txoriendako kabia izateko pentsatuta.

GUTUNA

Irurtzungo liburutegi publikoa

ZIGOR JASO RUIZ

IRURTZUNGO BIZILAGUNA

Irurtzun eta inguruko bailaretako herritar askok ongi dakiten moduan, badira zenbait aste Irurtzungo liburutegi publikoa ateak itxita dagoela, bertan lan egiten duen langile bakarra aita izateagatik dagokion baimenaz disfrutatzen ari baita.

Ez da errekurtsio hau tarte luze batez itxita ematen duen lehendabiziko aldia, eta liburutegiko erabiltzaile asko kezka, amorruez eta etsipenez bizi dugu egoera hau. Liburu, disko edota DVD mailegua eskaintzeaz harago, Irurtzungo Liburutegi

Publikoak eskaintzen baitu lasaitasun giro batean ikasteko toki, hilabete hotzenetan eman daitezkeen eguraldi makurreko egun horietan haurrekin egoteko espazioa... Kultur eta jatorri ezberdinetako pertsonen arteko elkargune era bada, eta baliabide ekonomiko urriko herritar askoren kulturarako sarbidea ere bermatzen du. Badakigu gutxienez Nafarroako beste dozena erdi herritan eta antzeko arrazoiengatik beste zenbait liburutegi publiko itxita daudela, hortaz, Irurtzungoa ez da kasu bakarra. Axolagabekeria erakusten du errealitate honek. Nafarroako Gobernuako ardurapean dagoen Irurtzun aldeko kultur espazio publiko

nagusia itxita dago eta horrela jarraituko du beste zenbait astez dagokionak neurririk hartzen ez badu. Kultura, Kirola eta Turismo sailak, alde batetik, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia, bestetik, dira langilea lehendabiziko egunetik ordezkatu eta denok ordaintzen dugun errekurtsioaren zabaltzea bermatu behar dutenak. Ezagutzara dugun eskubidea ezin du kontratazio zerrendak kudeatzeko modu eskas batek baldintzatua izan, eta errekurtsioaren irekiera bermatu behar duten horiei exijitu nahi diegu modu urgente batean zabal dezatela berriro gure herriko liburutegi publikoa. Ez gara besoak gurutzatuta egongo.

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

GUTUNA

Pediatra eta erdi

JOSEBA VIZUETE ASKARGORTA (OLAZTIKO ALKATEA), JAVIER OLLO MARTINEZ (ALTSASUKO ALKATEA) ETA OLATZ IRIZAR MARTINEZ (ZIORDIKO ALKATEA)

Ikasturte berriarekin batera, gure Osasun eskualdeko guraso batzuk Pediatra 1,5 plataforma eratu dute. Beraien helburua: gure osasun eskualdeari dagokion 1,5 pediatra bermatzea. Gaur egun 1.200 haur daude gure Osasun eskualdean, eta Osasun Departamentuak ezarritakoa ratioen arabera horiek artatzeko pediatra bat jardunaldi osoan eta beste bat jardunaldi erdian behar dira. Azken hilabeteetan ez dago horrelakorik Altsasuko pediatrian. Pediatra bat jardunaldi osoan dago eta jardunaldi erdian beharko lukeena lan murrizketan dago. Hori dela eta, gaur egun, egunero pediatra bat dator Altsasura, eta hamabostean behin, egun batean, bestea. Zerbitzuaren murrizketa hori dela eta, hainbat arazo ari dira sortzen pediatria zerbitzuan, batez ere, urteko errebisioak egiteko itxaron zerrenda luzeak sortzea. Egoera ez da berria, eta zoritxarrez, Altsasu, Olazti eta

Ziordiko Udaletatik behin baino gehiagotan jaso izan ditugu Osasun eskualdean egondako pertsonal faltarengatik kezak: gaur pediatra zerbitzua da, duela bi urte mediku falta... Gure herritarren osasun zerbitzuak modu duinean eman daitezzen eskatzeko egindako ekimenak ez dira gutxi. Izan ere, arazoaren oinarrian landa gunean dagoen osasun zerbitzua da. Landa eremura medikuak edo pediatrik etortzea ez omen da erraza, hala dio Departamentuak. Horregatik, zaila izaten da murrizketak, bajak edota oporrak ordezkatzeko. Hori esan digute oraingoan ere. Egiturazko arazo baten aurrean gaude, beraz. Guk, landa eremuko alkate moduan, osasun zerbitzuak modu duinean eskaintzea eskatzen dugu. Eta Osasun Departamentuari eskaera zehatza egiten diogu: Altsasuko Osasun Etxeari dagokion pediatra eta erdi hori bermatzea, eta horretarako beharrezkoak diren prozedurak jar ditzan. Izan ere, gure herriko haurrak ez dira landa gunean Osasun zerbitzuan dauden arazoen errudunak. Guk gure esku dagoena egingo dugu guraso plataforma honek eskatzen dituen oinarritzko eskubide horien defentsan.

Bi udalek 300.000 euro jasoko dituzte

Lakuntzako eta Altsasuko udal eraikinetan hobekuntza lanak egiteko aukera emanen du. Nasuvinsak 150.000 euro jasoko ditu Arbizon babestutako etheen proiektuari bulkada emateko eta Garalur Sakanan etxebizitzaren inguruko lanarekin segitzeko

SAKANA Nafarroako Gobernuaren aurrekontua onartzeko tramitazioan Parlamentuan ordezkaturik dauden taldeek hainbat emendakin aurkeztu dituzte. Lurralde Kohe-siorako Departamentuaren aurrekontuari aurkeztutako eta onartutakoan artean Sakanako bi udalekin erlazioa duten bi emendakin daude. Alde batetik, Lakuntzako Udalak 70.000 euro jasoko ditu kultura etxearen, musika eskolaren eta jubilatuek elkartearen eraikinean isolamendu lanak egiteko. Oihane Andueza Uribe txeberria Garmendia alkateak azaldu duenez, "mendebaldeko fatxadaren %90 kristalezkoa da. Neguan hotz handia sartzen da, berogailuarekin konpon daitekeena, eta udan beroa, jubilatuek elkartearen 30 gradura arteko tenperaturak izaten dira". Horri aurre egiteko, eraikinaren mendebaldeko fatxada berria egingen du udalak, isolatzailea jarri eta leihoak "dezente" murriztuko ditu. Horrela, gaur egun dauden arazoak saihestu eta energia eraginkortasuna hobetuko dute. "Hegoaldeko leihoetan lama sistemak jarriko ditugu bero gehiegi ez sartzeko". Alkateak azaldu duenez, "legegintzaldi hasieran udal eraikinen energia eraginkortasuna aztertu genuen eta, horregatik, hobetu dugu eskolako isolamendua edo udaletxearen egurrezko galdara jarri". Emendakina EH Bilduk aurkeztu eta onartua izan zen.

Bestetik, Altsasuko Udalak 230.000 euro jasoko ditu. Udaletxea eraberritzeko lanen barruan, haren atzean, artxiboa hartzeko eraikin berria egingen du udalak. Gainera, udaletxearen atzean, iparraldean, dagoen eraikina berri eta udaltzaingoaren egoitza izanen da. Geroa Baik aurkeztutako emendakinak Parlamentuaren onospena izan zuen. Altsasuko udaletxea erabat be-



Nasuvinsak 2023an Arbizurako egindako etxebizitzaren proiektua. ARTXIBOA

"NASUVINSAREKIN ALOKAIRURAKO BOST ETXE EGITEKO AKORDIOA BERTAN BEHERA GELDITU ZEN"

rritzeak 1,5 milioi euro balioko ditu. Udalak 2026an jasoko duen ditu horretaz aparte, gobernua-ren aurtengo aurrekontutik 300.000 euro jaso zituen. Eta obra-ren finantziazioa osatzeko udalak foru gobernuaren 2026-2028 Toki Inbertsioen Planaren deialdira eskaera aurkeztu zuen. Eta ebazpenaren zain dago.

Gehiago Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako Departamentutik 100.000 euro Nasuvinsa enpresa publikora joanen dira, hain zuen, Arbizon babes ofizialeko bost etxebizitzaren proiektua dinamizatzeko izanen dira. EH Bilduk emendakina aurkeztean argudiatu zuenez, "Nasuvinsaren eta hainbat toki-erakunderen artean blokeatutako hitzarmenak betetzeko" balioko du diru horrek. Fº Javier Razkin Flores alkateak

azaldu duenez, "Nasuvinsarekin alokairurako bost etxebizitza eraikitzeak akordioa sinatu genuen 2022ko irailean. Baina enpresa publikoak aurrekonturik ez zuela eta bertan behera gelditu zen. Diru sail horrekin geldi zegoen proiektuari bulkada eman nahi diogu. Gobernuaren aurrekontuetan halako egitasmoak egiteko diru asko bideratu da. Baina inork ez dezala pentsa diru partida bat eman dutelako etxebizitzak berehala egingen direnik", gaxtigatu du alkateak. Hitzarmenaren arabera Arbizuko Udalak San Joango bidea kalean duen 407,1 m2-ko lursaila Nasuvinsari emanen lioke, hark bertan etxebizitzak jasotzeko. Bestetik, Cederna-Garalur elkarteak 50.000 euro jasoko du Sakanako etxebizitzarako gida proiektua idatzi eta dinamizatzeko. EH Bilduk aurkeztu zuen emendakina, "Garalurrek Sakanako Etxebizitza Gidaren edizioan eskualdeko biztanleei informazioa emateko egin duen lana" babes-tu nahi du horrela. Haren aldeko botoa eman zuten PSNk, EH Bilduk, Geroa Baik eta Contigo-Zurekin koalizioak eta kontra UPNk, PPNk eta Talde Mistoak.

"Euskarazko soinua, egunero pozaren oihua."

guaixe 107.3 FM
guaixe.eus-en on-line
948 567 074 - irratia@guaixe.eus

"Helduek duten euskarari balioa eman nahi diogu"

GARAZI OTSAGABIA ETA AINARA LOPETEGI LAKUNTZAKO EUSKARA TALDEKO KIDEAK Herriko euskarako hitzak eta haren ezaugarriak jasotzen ditu 'Aiaupenanik a ze itzek' liburuak. Aurkezpen egunean ere pagoa landatu zuten Biltoki gazte elkarte parean

Maidor B eta Alfredo A. LAKUNTZA Liburua dagoeneko 10 eurotan salgai dago, Eroskin eta liburutegian. Egileak abenduaren 21ean plazan saltzen ariko dira, 12:30etik 14:00etara.

Nola bururatu zitzaizuen ideia?

Garazi. Pandemia garaian, 2020 urte inguruan, herritar batzuk elkartzen hasi ginen. Duela urte dezente Lakuntzan sortutako Aiaupenanik euskara taldea berriro martxan jartzea aukera polita zela iruditu zitzaigun. Euskarazko mintzapraktika saioak egiten hasi ginen. Hala, koetan jendeak, batez ere helduek, hitz eta espresio batzuk, oso politak, esaten zituztela ohartu ginen. Eta gure artean esan genuen halakoak gorde beharko genituzkeela. Bestalde, bagenekien herritar batzuk Lakuntzako euskararen inguruan egindako lan batzuk eginda zeudela: Mikelatxo eta Lourdes Flores, Itziar Ruiz eta Iñaki Uriz. Lehendabizi lau lan horiek dokumentu bakarrean bildu genituen. Eta, ondoren, mintzapraktika saioetan sortzen ziren hitzak pixkeka txertatzen joan ginen.

Ainara. Guretako garrantzitsua zen herriak zuen ondare bat jasotzea eta, orain, herriari bueltatzea.

G. Eta jende helduari balioa ematea. Ez dutenez ikasi, titulurik ez dutenez, uste dute beraien euskara ez dela ona. Eta liburuarekin euskara horri balioa eman nahi diogu.

A. Saiotara oso pozik etorri dira. Erantzuna oso ona izan da.

G. Haiekin oso gustura egon gara. Baita gure artean ere, giro onean egon gara.

Nola dago antolatuta?

A. Baina liburuari ez diogu "Hiztegia" deitu nahi izan, boluntarioek egin dugulako. Ez gara hizkuntzalariak, edo adituak. Zerrendan Andoni Egurtzaren ilustrazio batzuk tartekatu ditugu. Berak maketatu du liburuak.

Hitz bildumaz aparte agurra eta gutxieneko gramatika ditu.

G. Batez ere deklinabidea sartu nahi genuen, jendeak hitz horiek nola deklinatu behar diren jakiteko.

A. Eranskinetan daude oinarriko lexikoa, esaera zaharrak eta esapideak eta Egurtzaren ilustrazio batzuk, hitz batzuen berri emateko.

G. Ea etorkizunean esaera zahar gehiago bil ditzakegun.

Zenbat hitz jaso dituzue?

G. 2.300 hitz inguru jaso ditugu.

A. Jasota zeuden hitzak Lakuntzan erabiltzen zirela baieztatu dugu mintzapraktika saio horietan. Eta atera diren beste guztiak ere liburuan jaso ditugu. Gainera, beste iturri batzuk erabili ditugu. Esaterako, lehen sektoreko hitzak jasotzeko arbela jarri genuen 2024ko azokan. Eta 1992ko garagarriletik aurrera argitaratu zen Aiaupenanik aldizkarian ere baziren euskalkian idatzitako artikulak.

G. Bestalde, Jose Luis Erdozia Mauleonen Sakana Erdialdeko Hiztegia hartu dugu eta Lakuntzarekin zerikusia zuten hitz guztiak opatu eta liburuan sartu ditugu. Erdoziaren hiztegiak kontrastatzeko balio izan digu.

Zuei liburuak gustatu zaizue?

G. Lau urte aritu gara pixkeka-pixkeka, azken urtean gehien bat, udaberrietik aurrera. Lan neketsu eta luzea izan da.

A. Zalantza asko sortu zaizkigu, eta bagenituen erreferentziazko pertsona batzuk. Lehen sektoreko hitzetarako Juan Mari Razkin edo Felix Arregirengana jo dugu. Etxeko tresnetarako M^a Asun

eta Klarita. Candi eta Gregorio bere garaian.

G. Jubilatutako elkarteetan asteazketan mintzapraktika egiten dute eta pare bat aldiz zalantzekin joan gara Socorro Artiedarekin eta egotera. Bukarera zalantzak argitzen ibili gara. Baina honek ez du bukaerarik.

A. Jendeak liburuak eguberrietan etxean ikus dezala, eta burura etortzen zaizkion hitzak apuntatu ditzala. Orain errazagoa da gehitzea, aldatzea edo zuzentzea.

Zein da zuen gustuko hitza?

G. Nik ez nuen *eske* erabiltzen, *aukera* esan nahi du. Leirek asko erabiltzen du, eta gustatu zait. Aukera esan beharrean, *eske* *dekagu*. Nik ez dut Lakuntzako euskara erabiltzen eta asko ikasi dut.

A. Nik ere ez dut erabiltzen. Gure etxean erabiltzen zen, baina dagoeneko ez, zenbakiak: hirute-neun (300), lauteneun (400)... Dagoeneko hitz asko ez dira existitzen, izendatzen zuen gauza ez delako existitzen. Gutxienez, jaso. Hizkuntza batek bizirik irauteen duen bitartean hitz berriak sortzen joan dira. Eta aldatzen joan da.

Zenbat kide diru euskara taldeak?

A. Hamabiren bat.

G. Bileretara ahal dugunean joaten gara. Bakoitza ahal duenean joaten da. Orain, hitz bildumarekin, batzuk gehiago aritu gara. Baina etxe izenen kamisetarekin beste batzuk aritu ziren eta abuztuan atera genituen.

Zer asmo dituzue?

A. Mintzapraktika saioekin jarraituko dugu. Etxeen izenekin zerbait egiteko ideia dugu, dokumentatuta uzteko.

G. Orain atsedean pixka bat hartuko dugu. Baina aukera baliatu nahi dut gazteak Aiaupenanik euskara taldean parte hartzerantz animatzeko. Talde irekia da. Bakoitzak ahal duenean ahal duena egiten du. Beraien ikuspuntua oso interesgarria da.



Aiaupenanik euskara taldeko kideak.



Lakuntzan asko izan ziren liburuaren aurkezpenean.



Aurkezpenaren ondoren liburuak sinatzeko eskatuz joan zen bat baino gehiago.



Hainbaten artean Porrotzek eta Marimototsek emandako pagoa landatu zuten.

"GARRANTZITSUA ZEN HERRIAK ZUEN ONDARE BAT JASOTZEA ETA, ORAIN, HERRIARI BUELTATZEA"



Goiko solairua etxebizitza bihurtzeko lanak egin dituzte.

Egiarretako Kontzejuak etxebizitza bat egin du

Alokairurako etxebizitza izanen da kontzejuaren eraikin batean egindakoa

EGIARRETA

Garai batean Egiarretako eskola hartu zuen eraikinak beheko solairuan herriko elkarte eta goikoan kontzeju etxea zuen. Azken hori etxebizitza bihurtzea erabaki zuen kontzejuak. Lanak eginda, etxebizitzak sukaldea, egongela, hiru logela eta bainugela izanen ditu. Bere 81 metro karratuak horrela daude banatuta: sukaldea-egongela (30,8 m²), hiru logela (11,2, 12 eta 13,7 m²-koak), ezkaatza (2,3 m²), balkoia (4,5 m²) eta komuna (6,5 m²). Eskailerak 9,3 metro karratu hartzen ditu.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak 2023-2025 Tokiko Inbertsio Planean sartu zuen Egiarretako Kontzejuaren egitasmoa joan zen urteko otsaila akaberan. Elkartearen gaineko solairuan etxebizitza bat egiteko lanerako dirulaguntza jaso zuen horrela kontzejuak.

Lanak 84.010,25 euroko (BEZ barne) aurrekontua zuten. Eta departamentuak 34.212,36 euroko ekarpena egin zion. Haietatik 22.238,03 euro joan zen urtean jaso zituen eta aurreko gainontzeko 11.974,33 euroak. Etxebizitza Zerbitzuak, berriz, babestutako zaharberritze izendapena eman zion lanari eta, horrekin batera, 57.119,30 euroko dirulaguntza eman zion.

Finantzazioa lotuta, lanak emateko deialdia joan den urteko lastailean egin zituen kontzejuak, baina deialdia hutsik gelditu zen. Bigarren deialdian obra Cota Obras, proyectos y reformas enpresak bere gain hartu zuen.

Kontzejuaren egitekoen artean dago aipatu eraikinaren iparraldean itsatsita dagoen frontoiko lanak despiditzea. Aurreneko fase batean teitlatua jarri zion. Eskuin pareta jartzeko finantziazioa lortzen ahalegintzen ari da.

Hainbat kaletako argiztapena farola berrieekin hobetu du

Azaroko azken asteetan eta abenduko lehen asteetan Portu enpresako langileak herrian barna lanean ibili dira. Haien egitekoa farola berriak jartzea izan da. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, argi puntu berriak honako kaleetan jarri dituzte: San Pedroko Bidea, Egu-bera, Lapurbide, Iruñeko Etor-bidea eta Beheko Benta.

**BIKAIN
GARAIEA**



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

"Umeek ideia argi zuten, irudi politak egin zituzten"

ZIGOR GARTZIA ARREGI ISKIDIKO KIDEA

Iskidi Irurtzundik kanpo ezaguna da batean eta bestean mitologia pertsonaiekin ibili baita. Baita zanpantzarrarekin ere. Orain bi pertsonaia berri ditu

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Aski ezagunak dira Iskidiren mitologia pertsonaiak: basajaun, basandere, akerbeltz, herensugea, tartalo, galtzagorriak, Mari, Mikelats, jentilak, artaldea, artzaina eta gizotxo. Taldera bi kide berri batu dira.

Taldea handitu egin da!

Zezengorri eta Txolo panpina berriekin, bai.

Zein da Txolo?

Eskolan lau urte zituzten (egun bost) talde batekin lanean nengoen. Eta pertsonaia berri bat azaldu zen. Umeek argi zuten hiru begitakoa eta maitekorra izan behar zuela. Hainbat ezau-garri eman zituzten. Nahi gabe horri bueltak ematen hasi ginen. Umeek ideia marraztu ere egin zuten, irudi oso politak ziren, ideia argi baitzeukaten. Iritsi zen eguna zeinetan maiz agertzen

zen haien ahotan Txolo. Haiek hiru begiko mitologia pertsonaia nahi zutenez, Txape Iriarte Ollo taldekidearengana bideratu nituen. Hura ere liatu zen. Panpina berrien inguruan pentsatzen hasi zen.

Zein pauso eman zenituzten?

Txoloren pertsonaia borobiltzeko zezengorri agertuzen. Haurren irudietan oinarrituta Muxu estudioko Xabier Unanuak Txolori forma eman zion. Eta horrekin guztiarekin Haritza Bergararengana joan zen Iriarte. Hark osatu zuen istorioa. Urretxun Mikel Ibarzabalek egin ditu panpinak.

Zein da bere kondaira?

Mariren koba ingurua babesten duena zezengorri da, edonori pasatzen uzten ez diona. Sakanan lehorte handi bat izan zen eta baserritarrak kezkatu zeuden, urduri, borrokan ere. Halako batean, Txolo, Irurtzun inguruko gazte batek Marirengana



Zezengorri eta haren gainean doan Txolo. Oinezko Txolo aldamenean. ISKIDI

joatea erabakitzen du. Eta kobara iritsi aurretik zezengorriekin topo egingen du. Hark sumatzen du Txolo bihotz onekoa dela eta eskean doala, eta Marirengana eramanen du. Kezkaren berri izanda, jainkosak bi gauza eskaintzen dizkio: lehorteari aurre egiteko mirakulua. Eta, garrantzitsua, zezengorriren boterea duen hirugarren begia eskaintzen dio: pertsonen barruan begiratu eta zentzu onez jokatzeko ahalmena. Marirekin egon ondoren, Txolo zezengorriren gainean jarri eta bueltan joan zen.

Bikotea osatzen dute?

Bai. Txolo zezengorriren gainean joan daiteke, baina oinez ere joan daitezke, nor bere alde. Jokoa

ematen dute. Besteekin alderatuta, desberdina da. Oso panpina polita atera da. Jakina, Txolo haurren laguna da, bihotz onekoa. Ea zer ibilbide egiten digun.

Haurrek kondaira badakite?

Panpina ikusi dute. Apika, Txolorekin eskolara bisita egitea falta zaigu, istorioa kontatzeko eta umeen begietan zein dirdira egiten duen ikusteko.

Jendaurrean aurkeztuko dituzue?

Aurrerantzean ditugun hitzorduetan presente egonen dira. Mitologia pertsonaiek erakargarritasuna sortzen dute. Baina beraien beste balioa da panpina asko direla eta 30-40 panpina batera eta bestera ikustea bere xarma du.



ABENDUAK 15 - ABENDUAK 19

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Sakanerria eta kirol tartea

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape, Aralar eta Guaixe irratiak

14:00 Errepikapena

Hizketan

Astlehena 15

Aiupenanik liburuaren aurkezpena.

Astearte 16

Iskidiko mitologia pertsonaia berriak.

Asteazkena 17

Bertso plaza.

Osteguna 18

Bertso saio musikatua.

Ostirala 19

Agenda berezia.

FESTAK

ZIORDIA

SANTA LUZIA

ABENDUAK 12 ostirala

15:00 Gazte bazkaria.

17:30 Bingo musikatua.

19:30 Karro poteoa.

00:00 Techno gaua.

ABENDUAK 13 larunbata

13:00 Bermuteo Santa Lutzi.

15:00 Herri bazkaria.

19:30 Pintxo dastaketa (urterokoa).

21:00 Pilota partiduen finala.

23:00 Biziraun erromeria.

03:00 DJ Santalutzi.

05:00 Akelarrea.

ABENDUAK 14 igandea

18:00 Etorikizuna dantza taldearen ikuskizuna.



UTZITAKO

Sanandresak Unanun

Unanuarrek San Andres eguna ospatu zuten azaroaren 30ean. Ermitan meza izan zen. Ondoren, Denok Bat elkarteak 65 herritar bazkaltzera elkartu ziren. Aukera baliatu zuten Resu Mendibe eta Patxika Lizarraga omentzeko. Biak gazte zireneko bizitzako pasarte batzuen berri eman zituzten omenaldian. Bazkaldu ondoren giro ederrean egon ziren.

Etxarriko eskolakoa 'Aparteko Jantokia'

Gizarte Eskubide, Kontsumo eta Agenda 2030eko Ministerioaren aintzespen hori jaso du. Menu osasungarri eta jasangarrien plan baten barruan, ikasleen artean arrainaren ohiko kontsumoaren aldeko apustua egin du

A.A.I. ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko San Donato herri eskolako jantokia Eskubi-de Sozialak, Kontsumo eta 2030 Agenda Ministerioak jantoki bikain gisa hautatutako jantokietako bat da, menuen kalitate eta iraunkortasunarengatik.

Eskola Jantoki Osasungarri eta Iraunkorrei buruzko Errege Dekretu berriarekin batera, Ministerioak jantoki bikainen inguruko gida egin zuen. Eta hartan araudi berriak ezarritako jarraibide batzuk jada abian jarri dituzten ikastetxeen adibide batzuk ematen ditu, tartean Etxarri Aranazko eskolakoa. Jangelaren kudeaketaz Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua arduratzen da. Bozeramaileak esan duenez, "agerian gelditu da araudi berriko jarraibideak aplikatzea posible dela eta zorrotzagoak ere izan daitezkeela, horrekin menuen prezioa igo gabe".

Hezkuntzako arduradunek azaldu dutenez, "ikastetxeek bat egiten dute ikastetxeetan astero eguerdiz egiten diren bost otorduak osasungarriak izatea bermatzen duen araudiarekin, eta, horrela, askotariko dieta eta dieta orekatua ziurtatu nahi da ekitate-baldintzetan. Helburu hori aintzat hartuta, fruta eta



Loli Igoa Unzilla bazkal garaian zerbitzatzen. ESKOLA

barazkiak eta arraina, lekaleak eta zereal integralak jatea bultzatzen da, ultraprozesatutako elikagaiak mugatzearekin batera".

Etxarri Aranazkoa moduko eskualde eskoletako jantokiaren lizitazio deialdietan departamentuak enpresei eskatzen die dietista-nutrizionista langileak izan behar dituztela plantillan, eskola menuak egiteko. Era berean, menu horiek Hezkuntza Departamentuko dietista-nutrizionistek gainbegiratzen eta testatzen dituzte aldizka. Bestalde, ardu-

radunek gaztigatu dutenez, "lanean ari gara ikastetxean bertan sukalde zerbitzua duten eskola jantokiaren eredu bat ezartzeko, garaiko produktu fresko, hurbileko eta ekologiko eta guzti, ahal baldin bada".

Aitortza

Loli Igoa Unzilla jantokiko zerbitzariak azaldu duenez, haurrei eskaintzen dizkieten jakien artean daude "potajeak, arraina eta jaki osasungarriak, onak dira. Etxean jaten duguna bezalakoa da".

Elikadura egokia izateko, Jangarria enpresa arduratzen da eguneroko menuak prestatzeaz. "Haiek prestatutako menuak eskolako sukaldean bertan prestatzen ditu Ane Peña sukaldariak". Sukaldariak prestatutako platerak jangelan ikasleei banatzeaz arduratzen dira Igoa eta Bittori Senar Andueza, baita jantokia antolatzeaz ere.

Gaur egungo gizartean kultur aniztasuna, elikadura intolerantziak eta bestelakoak daude. "Menuak prestatzerakoan horiek guztiak kontuan hartzen dira. Gaitzei dagokienez, guk, zorionez, kasu bakarra dugu, zeliako bat". Magrebko gurasoen seme-alabei "gurasoek eskatzen dutena ematen diegu. Zeren, batzuk ez dute oilaskorik jaten, eta besteek bai".

Ikasleek zerbitzatutako platerak gogoz hartzen ote dituzten galdetuta, esan duenez, "batzuek bai, oso ongi. Besteak ez. Badakizu, halako jatekoak haurrei ez zaie asko gustatzen. Baina gehienek ongi hartzen dute".

Zaindu beharrekoak

Eskola menuak prestatzerakoan departamentuak kontuan izaten dituen irizpideetako batzuk dira elikagai naturalenak edo ahalik eta gutxien prozesatutakoak erabiltzea. Horretarako, garaiko eta hurbileko landare produktu eta lekale freskoak kontuan izaten saiatzen dira, ekoizpen ekologikoko elikagaienak eta ikastetxean bertan jakiak prestatzea.

Horrekin batera haurren obesitatea begiz jota du departamentuak: "Europar Batasuneko osasun publikoko arazo larrirenetako bat da. Estatuan 6 urtetik 9 urtera bitarteko haurren heren batek baino gehiagok gehiegizko pisua du, eta obesitatea %15etik gorakoa da, Aladino 2023 ikerke-

taren arabera. Hori dela eta, fruta eta barazkiak egunero kontsumitzeko gomendioa egin dute. Hau da, egunean 400 gramo edo 5 fruta edota barazki zati jatea. "Arau hori betetzen dituzten adingabeen ehunekoa oso txikia da. Ikasleen erdiek baino gutxiagok jaten du fruta egunero, eta barazkiak are gutxiago".

Kontuan izanik haurrek ikastetxean denbora asko pasatzen dutela, eta ikasle askok gutxienez otordu nagusi bat bertan egiten dutela (normalean, eguerdiko bazkaria, egunerako energiaren %30-35 eman behar die), "eskola ingurunea funtsezkoa da helduarrora arte mantendu daitezkeen elikadura jokabide eta eredu osasungarriak bulkatzeko", azaldu dute arduradunek. Ildo horretan, gidak, Etxarri Aranazko San Donato herri eskolako jantokiaren ondorengoak nabarmendu ditu: ikastetxean bertan sukalde izatea, menuen arrainaren errezetak sartzearen aldeko apustua egitea eta arrain urdina eta arrain zuria txandakatzea, ikasleek arraina jatea lortzeko erronkaren barnean, asteen arrainaren errezeta bat eta hiru artean eskainiz, Omega 3 gantz-azido poliinsaturatuak bezalako mikronutriente iturria izanik.

Ministerioaren aitortzaren ondoren lanera "pozik" joaten dela aitortu du Igoak. "Gure lana norbaitek ikusten du, eta estimatzen du. Lanean segitzeko motibagarria ere bada".

"JAKI OSASUNGARRIAK, ONAK DIRA. ETXEAN JATEN DUGUNA BEZALAKOA DA"

Argiak mustu dituzte

Altsasuko Udalak eguberriak argiak hilaren 2an piztu zituen. Berriak estalpeko eta geralekuko zubikoak dira. Horretan *Zorionak* eta *Altsasu-Alsasua* jartzen duten argiak 9az geroztik daude piztuta. Gainera, Zumalakarregi eta Foru plazetan, Altzania, San Juan, Zelai eta Gartzia Ximenez kaleetan eta Intxostia Zeharbidean daude argiak.



EGURDIAIN
sutarako egurra

608 57 03 57




KOLABORAZIOA

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

SAKANA OSOKO LEKU-IZENAK MAPETAN IDENA (Infraestructura de Datos Espaciales de Navarra) BALIATURIK

Hiru hamarkada luze pasatu dira dagoeneko Jimeno Juriok Sakanako toponimia jaso zuenetik bere lantaldearekin. Nafarroako Toponimia eta Mapagintza (NTM) bildumako bost liburu argitaratu zituen orduan Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza Departamentuak Sakanako toponimiari begira: NTM VIII-IX-X-XII-XIII, 1992 eta 1993 urteetan. Horietan, hurrenez hurren, Ergoienako, Burunda mendebaldeko, Burunda ekialdeko, Aranatz-Arakil mendebaldeko Aralarko eta Arakil ekialdeko toponimia dago jasoa. Lan izugarria ordukoa, baina ikusita aipatu bilduman ez zirela adin handiko sakandarrek gogoratzen zituzten herrian herriko toponimo guztiak agertzen, badira dagoeneko bi hamarkada luze nik neronek horiek jasotzeari ekin niola. Ondoren, Sakanako herri ugaritan egin izan dira mapa toponimikoak. Horiek guztiak

kontuan izan ditut eta tokian tokiko informatzaile egokiak aukeratu ere bai. Dokumentazioari dagokionez, oso lagungarri izan dut Rafael Carasatorre Vidaurre etxarriarraren documentanavarra.blogspot.com bloga. Etxarri Aranazko toponimia eta Burundakoa bi liburutan jasota dauzkat dagoeneko: lehen Nafarroako Gobernuak 2019an argitaratutako Etxarri Aranazko leku-izenak herrigune historikotik kanpo izenburuarekin; eta bigarren, Nafarroako Gobernuaren Edizio laguntzak baliaturik 2024an, Burunda. Historia eta toponimia izenburuarekin. Bukatu berri ditut dagoeneko Sakanako herri guztietako mapa toponimikoak. Etxarri Aranazkoa, Ergoienakoa, Arbizukoa eta Altsasukoa Etxarriko eta Altsasuko Ferietan plazaratu nituen eta Arbizukoa,



aldiz, Txistorraren egunean. Ergoienakoa ere lehenago erakutsi nuen hiru kontzejuetako elkarteetan. Hurrengo asmoa, Sakana osoko toponimia eguneratua zenbait liburutan jasotzea litzateke, Etxarri Aranazkoarekin eta Burundako sei herrietakoekin egin dudan moduan. Liburu horietako zenbait bereziki mardulak izanen dira, Burundakoa (688 orrialde) bezala eta horiek guztiak banan-banan irakurtzen pazientziarik nahikoa ez duenarendako, egungo mapa toponimikoak egin ditut, orduan. Egungo mapa toponimikoak esaten dudanean, IDENA web plataformatik jaitsitako mapak direla esan nahi dut, hau da, herriguneak, basoak, mendiak eta soro eremuak aireko argazki baten moduan ikusten direla. Herri bakoitzeko toponimo guztiak begien bistan izatea da mapa hauen helburua eta orduan udal bakoitzeko mapaz gain, zonaldeetako mapak ere (Burunda, Aranatz, Lakuntza-Arruazu-Uharte-Irañeta, Arakil-Irurtzun) egin ditut. Burundako mapa toponimikoan, esate baterako, 1150 jatorrizko toponimo (Egubera) ageri dira eta baita 700dik gorako eratorri ere (Eguberako itzala). Beste hainbeste gertatzen da

Aranazkoarekin, bertan hiru udaletako sei bizilekuetakoak (Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa, Arbizu, Unanu, Dorrao, Lizarraga) ageri baitira. Guztira, gutxi gorabehera, 3900 toponimo jatorrizko daude jasoak aipatu mapetan eta jatorrizkotik eratorritakoak ez beste hainbeste seguruena, baina 2000tik gora izanen dira. Denaz ere, ia 6000 toponimo edo leku-izen aurkituko dituzue Sakanako lau eremuetako mapa toponimiko horietan, honelaxe banaturik: • **ARAKIL EKIALDEAN** (Arakilgo eta Irurtzango udalak): 800en bat jatorrizko eta 400en bat eratorri. • **ARAKIL MENDEBALDEA** (Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza): 700ren bat jatorrizko eta 300en bat eratorri. • **ARANATZ** (Arbizu, Ergoiena, Etxarri Aranatz): 1250en bat jatorrizko eta 650en bat eratorri. • **BURUNDA**: 1150en bat jatorrizko eta 650en bat eratorri. Bestela ere, lau eremu hauek zehaztu eta biltzen duen Sakanako mapa egin dut eta honekin batera, ia-ia herriz herrikako bestelakoak (20): • *Burundako sei herrietakoak*, banan-banan (6). • *Aranazko hiru udaletakoak*, banan-banan (3).

• *Arakil mendebaldeko lau udaletakoak*, banan-banan (4). • *Arakil ekialdean, Irurtzun udaleko eta Arakilgo kontzejuetako* tamainaren araberrako ondorengoak: Ihabar-Murgindua, Hiriberri, Egierreta, Etxarren, Etxeberri-Irurtzun-Aizkorbe, Errotz-Izurdiaga-Urritzola, Ekai-Zuhatsu-Satrustegi (7). Hogeitabost mapa baliatu ditut orduan Sakanako egungo toponimia osoa jasotzeko eta horietan guztietan, sei milatik gora leku-izen. Horietako asko, gainera, aspaldiko sakandarrek erabiltzen zuten hizkeraren erakusgarri: madura, oiha, gibel, alor, ardantze, legar, itsesi, arboton, erreten, uberka, malkor, arrubi, idoi, baltegi, kapana, aska, galar, barga, saroi, sarobe... Azken sei-zazpi hamarkadetan asko aldatu da bizimodua gurean, beste tokietan bezala. Basoak eta soro eremuak ziren Sakanako biztanleen lantegi nagusia eta behar-beharrezkoa zen “lantegia” non zegoen jakitea. Horretarako izenak zizkieten aurrekoek jarriak lekuei eta horrelaxe iritsi zaizkigu guri. Ezin ditugu horiek guztiak ahazten utzi. **AURKEZPENA** *Etxarri Aranazko Kultur Etxean 2025eko abenduaren 19an, ostiralarekin, 18:30ean*

DUELA 25 URTE...



Lakuntzako urtekaria eta egutegia

Aiaupenanik euskara taldeak bi lan argitaratu zituen. Alde batetik 2000. urtean izandako kontu, gertakizun eta pasarte guztiak jaso zituen 30 bat orriko urtekari batean. Musutruk banatu zuen. Horrekin batera, Lakuntzako euskara taldeak 2001eko egutegia argitaratu zuen. Hiru berezitasun zituen. Batetik, herriko argazki zahar eta berriekin ilustratuta zegoen. Bestetik, lakuntzar guztien urtebetetze data agertzen zen. Azkenik, herriko festa egunak markatuta zeuden.

Aurreneko Korrika duela 45 urte izan zen

AEKk gorazarre egin zien Korrikaren sortzaileei eta aurrenekoz lekukoa eraman zutenei. AEKk gogorarazi du "Korrika antolatzeako arrazoiak" bere horretan mantenduko direla, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea lehen lerroan ipini arte

SAKANA

Aurreneko Korrika Oñatiko Unibertsitatearen atetik 1980ko azaroaren 29ko 22:00etan abiatu zen, eta Bilbon abenduaren 7an bukatu zen. 1.820 kilometroko ibilbidea izan zuen eta *Zuk ere esan bai euskarari* izan zen leloa. Lehen edizioaren 45. urteurrena gogoan, AEKk ekitaldia egin zuen Oñatin azaroaren 29an. Ekitaldian Korrikaren sortzaileak gogoan izan zituzten: Urtsa Errazti, Joseba Kanpo, Enrike Ibabe, Josepe Zuazo, Alvaro Gurrea... Orduko AEKide guztiei ere esker ona adierazi zieten: Julen Kaltzada, Bittor Allende... Baita lehenengo Korrika hartan protagonista izan zirenei ere. Xabier Amurizari, Korrikaren lehendabiziko kantaren sortzailea izateagatik. Remigio Mendi-bururi, lekukoaren egilea izan zelako. eta lekukoa estreinakoz eraman zuten Eli Galdos Zubia Oñatiko alkate izan zenari eta Jose Maria Satrustegi Zubeldiari. Euskaltzain arbazuarraren Pilartxo eta Maria Jesus ahizpak eta Aintzane Esparza iloba izan ziren ekitaldian.

Ekitaldiak ospakizunetik eta omenalditik izan zuen, baita aldarrikapenetik ere. Korrikako arduradun Ane Elordik gaztigatu zuenez, "zoritzarrez, oraindik, 45 urte eta 23 Korrika geroago, Korrika antolatzeako beharrian berberak ditu AEKk: euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta dirua biltzea AEKren eguneroko lana indartzeko. Elordik argi utzi nahi izan du ezen "ez gara folklore. AEK gara. KORRIKA gara. EUSKARA gara".

AEKren Nazio Kontseiluko kide Aize Otaño Lizarralde esan zuenez, kontu batzuk ez dira horrenbeste aldatu 45 urtetik hona: "Berriki esan dugu 24. Korrikan aldarrikatu nahi dugula euskara guztiondako aterpe irekia eta eroso dela; eta, nola ez, presa dugula Pizkunde berri bat



Ezkerretik 3.a Pilartxo, 4.a Aintzane eta 7.a Mª Jesus, AEKko ordezkariekin. KORRIKA

"BOTERE PUBLIKOEK HELDUEN EUSKALDUNTZEA LEHEN LERRORA EKARRI BEHAR DUTE"

abiatzeko, Euskal Herri euskalduna lortzeko begira". Horretarako, beste gauza batzuen artean, AEKkoak nabarmendu zuen helduen euskalduntzea lehen lerroan ipini behar dela; izan ere, gaur-gaurkoz, eta garai hartatik aurrerapausoak eman diren arren, aldarrikapenek berdin jarraitzen dute: "Helduen euskalduntzea lehen lerrora ekartzeak esan nahi du botere publikoek gisa horretako aitortza egitea". Bestela, AEKk jarraitu beharko du Korrika antolatzen, hala dirua biltzeko nola euskararen normalizazioaren aldeko lana aurrera eramateko Euskal Herri osoan.

AEKko ordezkariak hiru eskaera egin zituzten. Aurrena, "Euskal Herri osoa hartuko duen egitura egonkor eta iraunkor bakarra" sortzea aldarrikatu zuten; helduak euskalduntzeko

eta alfabetatzeko jarduna koordinatu eta osorik finantzatzeko duen agenzia bat, hain zuzen ere. Hurrena, doakotasuneranzko bidean pauso sendoagoak emateko konpromisoa; hau da, "herritarrek dirurik aurreratu beharrik ez izatea euskara ikasi ahal izateko, eta herritar bakoitzak 2.000 orduko poltsa bat izatea euskalduntze-prozesu osorako". Eta, atzena, euskara ezagutzeko beharra sustatzea. Azpimarratu zuten, Euskal Herri osoan bizitzeko alor guztietan euskara nagusi izatea jomugan, beharrezkoa dela hizkuntza politika koordinatu, bateratu eta bakarra egotea, "Erdaldun elebarkarrei argi sentiarazteko euskara ikastea gero eta beharrezkoagoa gertatuko zaiela. Hala, herritarrek euskara ikasteko eta erabiltzeko erabakia edo hautua egin dezaten, oso beharrezkotzat jotzen dugu hizkuntza-politikako zenbait neurri lege-babesa izatea eza gutzaren unibertsalizazioa espresuki jasotzea". Bereziki, lau eremu aipatu zituzten: administrazioa, hezkuntza ez-formala, eremu sozioekonomikoa eta ingurune digitala.

Euskara eroso eta talde txikitik praktikatzeako aukera

Mintzakideko hamahiru talde martxan daude, eta berriak sortzeko aukera dago

SAKANA

Inguruan euskaldunak ez duela, euskaltegian ikasitakoak sendotzeko, jario biziagoa lortzeko, hizkuntza aberasteko, zaletasun bat beste batzuekin euskaraz egin ahal izateko... Makina bat arrazoi egon daitezke Mintzakidena izena emateko. Programa horrek euskaraz aritzeko guneak eskaintzen die horretan interesa duten pertsonari. Euskarazko mintzapraktika taldeen funtzionamendua oso erraza da: euskara praktikatu nahi duen lagun talde bat astean ordu betez euskaraz aritzeko prest dagoen pertsona batekin elkartzen da. Maiztasuna, normalean, asterokoa izaten da baina, geroz eta gehiago, parte hartzaileen nahi eta beharretara moldatzen diren taldeak sortzen ari dira, egitasmoaren malgutasunaren erakusle.

Sakanako zazpi herritan hamahiru mintzakide talde martxan daude. Baina berriak sor daitezke. Batzuek taberna edo kafetegi batean elkartzen dira, kafe bat hartuz euskaraz hizketatzeko. Baina mendi edo bizikleta buelta bat emanez praktikatu daitezke, elkarrekin mahai jolasetan jokatz, josiz... Zaletasunak ere

ematen baitu euskara praktikatze eta jendea ezagutzeko aukera. Nabarmenezkoa da Mintzakidena ari direnak ekarpen oso garrantzitsua egiten diotela euskararen biziberritze prozesuari. Benetako aktibista linguistikoak dira eta musutruk, modu boluntarioan eta bere onena emanaz egiten duten ekarpen hau, behar-beharrezkoa dugu erabileran aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

Sakanako Mintzakide programa Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatzen du eta Sakanako AEK-k koordinatzen du. Dagoeneko martxan dauden taldeetan sartu daitezke, edo berri bat sortzeko proposamena egin. Izena eman nahi duenak 600 48 22 24 telefono zenbakira hots egin edo sakana_mintza@ae.k.eus posta elektronikora idatzi behar du. Izen ematea dohainik da.

EUSKARAREN BIZIBERRITZE PROZESUARI EKARPEN GARRANTZITSUA EGITEN DIOTE

Martxan dauden taldeak

• Irurtzun:

asteartetan, 18:30ean, Iratxo elkartearen.
ostiraletan, 09:00etan, Pikuxarren.
ostiraletan, 19:00etan, Pikuxarren.

• Lakuntza:

asteazkenetan, 18:30etan, jubilatuen elkartearen.

• Arbizu:

asteartetan, 16:00etan, eskola zaharrean.

• Etxarri Aranatz:

ostiraletan, 18:30ean, Xapatero tabernan.

• Altsasu:

astelehenetan, 10:00etan, liburutegian.
astelehenetan, 16:00etan, Gautxori tabernan.
ostegunetan, 20:30ean, Lezea tabernan (Altsuko euskara).
ostiraletan, 09:30ean, Kaixo tabernan.
ostiraletan, 10:00etan, Zubeztia elkartearen.

• Olatzagutia:

astelehenetan, 17:30ean, Ogiberri kafetegian.

• Ziordia:

ostiraletan, 17:00etan, liburutegia

Sakanako kirolari onenak

Sakanako Mankomunitateak 2024 eta 2025eko Sakanako Kirolari Onenei aitortza egingo die gaur, Irurtzongo kultur etxean. Epaimahaiak erabakia hartzea "oso zaila" dela dio, "primerako kirolariak ditugulako"

Maidar Betelu Ganboa SAKANA / IRURTZUN

Sakanako Mankomunitateak gaur, abenduaren 12an, 2024 eta 2025eko Sakanako kirolaririk onenak sarituko ditu Irurtzongo kultur etxean, 19:30ean abiatuko den ekitaldian.

Epaimahaiak azaroaren 27an erabaki zituen aurtengo sarituak, sakandarrek egindako proposamenak aztertuta. "Lana ez da batere erraza" nabarmendu du Amaia Gerrikagoitia Uriarte Sakanako Mankomunitateko kirol teknikariak. "Sakanan kirolari asko daude, kirol ezberdin askotakoak, eta kirolari onak, maila oso handian lan egiten dutenak, meritu askorekin. Beraz, aukeraketa oso zaila da".

Aukeraketa egiteko zenbait irizpide hartzen dituzte kontuan. "Ibilbide luzea daramatenak eta agian horren sarituak ez direnak izan, edo lorpen edo meritu handiak dituztenak... denetatik. Bestalde, hainbat herritako sarituak izendatzen saiatzen gara, eta kirol ezberdinetakoak".

Saritutako kirolari guztiendako, eta aukeratuak izan ez direnendako, hitz onak izan ditu Gerrikagoitiak. "Bai gazteak eta helduagoak ere bai, meritu handiko kirolariak dira guztiak, oso langileak".



Txirrindularitza, paleta goma, kickboxing-a, atletismoa, futbola, handbike-a, harri jasotzea, saskibaloia eta mendia dira saritu diren kirolak. "Guztiak sakrifizio handikoak. Gure kirolariek sekulako denboraldia egin dute. Gazte asko eta emakume asko batzen ari dira kirolera, eta pozik gaude". Kirol taldeek euskara bultzatzea da Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzutik bilatzen dena, eta kontentu daude urtetik urtera klub gehiagok konpromisoa hartzen dutelako.

Sakanako Mankomunitateak Irurtzongo kultur etxeko gaurko sari ematera hurbiltzeko deia egin diete sakandarrei.



ARAKILGO ZALDUA FUTBOL TALDEA SAKANAKO KIROL TALDERIK ONENA

Futbola

Arakilgo Zaldia futbol taldeak Elomendiko Futbol Txapelketan jokatzeko du talde arakildarra sortu zenetik, duela 40 urte. Talde arakildarrak aurtengo 40 urte bete ditu, baina 40 urte gazte ditu, taldea guz-

tiz eraberrituta dagoelako. Elomendiko txapelketa Nafarroan jokatzeko den txapelketa herrikoi eta xumeenetako bat da. Zalduek Elomendi Txapelketaren 50. urtemuga ospatzeko torneo irabazi zuen 2022an, eta Kopa duela lau urte.

LUCA MARTINEZ LOS SANTOS TXIRRINDULARIA, 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO KIROLARI ONENA

Txirrindularitza

Luca Martinez Los Santos txirrindulari sakandarra Aralar Txirrindularitza klubean trebatu zen, baina aurtengo juniorren lehen urtean, Danena Tolosa taldera egin zuen salto. Juniorren bere lehen urtean ikusgarri aritu da. Guztira zortzi garaipen lortu ditu: Urvaca, Lukin, Obanos, Cervico de la Torre, Lacturale Trofeoa, Felix Errandonea Memoriala, Lizarrako Rio Ega Trofeoa eta Iruñeko Itzuliko Mendiko sailkapena, eta makina bat podium. Horretaz gain, Nafarroako errepublikako junior txapelketa da, Nafarroako erlojupeko txapelketa hirugarren izan zen, eta Espainiako erlojupeko hirugarren. Dato-



rren urtean juniorren bigarren urtea jokatuko du, Danena Tolosarekin.

MAIALEN LARRAZA SENAR PALISTA, 18 URTE BAINO GUTXIAGOKO KIROLARI ONENA

Paleta goma, trinketea eta beste

Etxarri Aranazko Gure Pilota klubeko Maialen Larraza Senar palista handia da. Aurtengo, V. Nafarroako Foru Komunitateko Emakumezkoen Paleta Gomako txapelketa izan zen lehen mailan, Inunciararekin, eta GRABNI txapelketa txapelketa, Zabaltzarekin bikotea osatuta Nafarroa ordezkatuz. Nafarroako Binakako Pala Txapelketa eta Banakako txapelketa izan da. Sakanako Nesken Pala Txapelketa, azken bi edizioetako lehen mailako txapelketa izan da, 2024an, Purroyekin eta 2023an Maziziorrekin. 2024an Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goman txapelketa izan zen kadeteen



mailan, eta Euskal Herriko Klubeko Arteko txapelketa, Lazkozekin.



SAKANAKO HARRI JASOTZE ESKOLA EUSKARA GEHIEN SUSTATU DUEN SAKANAKO KIROL TALDEA

Harri jasotzea

Sakanako Harri Jasotze Eskola 2004. urtean sortu zen, Mikel Lasarte arduradun eta monitorea zela. Hasieratik euskaldunen dako arnagunea izan zen, klaseak eta trebakuntza euskaraz baitzen. Aurtengo

Lasarteren ikasle Jon Irañetak hartu du eskolaren lekukoa, eta ildo beretik jarraitzen du. Egun, 28 neska-mutiko trebatzen dira Sakanako Harri Jasotze eskolan, eta larunbatean jaialdi handia antolatu dute Irurtzunen, Eskolaren Txapelketa Mistoa.

MOHAMMED HAMDİ HAJJİ
KICK BOXING-A, 18-35 URTE ARTEKO
SAKANAKO KIROLARI ONENA

Kickboxing-a, boxeoa eta borrokak
Mohammed 'Moha' Hamdi Hajji irurtzundarrak palmares ikaragarria du kickboxingean. Espainiako selekzioarekin, 2019an munduko kickboxing txapelduna izan zen, 2022an Europako txapeldunordea, 2023an munduko hirugarrena eta 2025ean, azaroan berriki jokaturako WAKO World Championship pisu astunetan (-91 kg), munduko txapeldunordea izan da, Abhu Dhabin. 2024an Munduko Kickboxing Kopa irabazi zuen, seigarrena, bestelako lorpen zenbaezinekin batera. Aurten Espainiako Txapelketa irabazi zuen, zazpigarrenez. Pontevedrako gimnasio batekin fitxatu du eta bertan bizi da. Boxeoan eta beste-



lako modalitateetan aritzen da, eta mundu mailako konbateetan hartzen du parte.

ANE BERASTEGI JAKA
TXIRRINDULARIA, 18-35 URTE ARTEKO
SAKANAKO KIROLARI ONENA

Txirrindularitza eta pista txirrindularitza
Ane Berastegi Jaka txirrindulari arbizuarra Aralar txirrindularitza klubean trebatu zen, eta Ecologicos Navarra Beratxa Sport Team taldeko txirrindularia da, pista txirrindularitzan espezialista handia. Aurten, nahiz eta mononukleosiatik bere onenean ez egon, Nafarroako pista junior txapelduna izan zen, scratchean, puntuazioan eta kanporaketan, eta Espainiako Pista Txapelketetan hirugarren sailkatu zen. Bestalde, Espainiako selekzioarekin Munduko Txirrindularitza Junior Txapelketetan hartu zuen parte abuztuaren Apeldoornen. Bere taldea taldekako jazarpen modalitatean zazpigarren



izan zen. 2026an afizionatuen mailara egingo du salto.

IÑAKI MUJIKAZAGIRRE
HANDBIKE-A, 35 URTETIK GORAKO
SAKANAKO KIROLARI ONENA

Handbike-a eta motorra
Iñaki Mujika Izagirre altsasuarrak motor gainean hasi zuen bere kirol ibilbidea. Motokrosean eta enduroan trebea, Nafarroako Enduro txapelduna izan zen eta denetariko lasterketetan parte hartu zuen. 2021ean Tierzeko motokrosean istripu larria izan zuen eta ordutik gorpildun aulkian mugitzen da. Hasieratik kirolean jarraitzeko grina izan zuen, eta 2023an handbike-an hasi zen. Aurten Salto 15K probako txapelduna izan zen handbike modalitatean eta Behobia Donostian laugarren sailkatu zen, baina lorpen handiena Bartzelonako Institut Guttman taldekoekin Titan Desert Marocco egitea izan



da. Basamortuko proba gogorra handbike-an osatu duten lehen kirolariak izan dira.

MAITE BEREGAÑA IBERO
KORRIKALARIA, 35 URTETIK GORAKO
SAKANAKO KIROLARI ONENA

Atletismoa eta mendi lasterketak
Maite Beregaña Ibero uharte arakildarra atletismoan eta mendi lasterketetan aspaldiko ezaguna da. Sakanako lasterketan ahal duen guztietan aritzen da, eta etxeko proban, Uharte Arakil Berriain Km Bertikalean, ez du hutsik egiten; sarritan lehen uhartearra izan da, eta beterranoen podiumera igo izan da. Aurten, 2025ean, Etxauriko krosa irabazi zuen, bigarrenen, eta Artaxoako San Saturnino Sarian hirugarren beterranoa izan zen. San Blas krosa irabazi izan du. 2024an Orreaga Zubiri maratoi erdian hirugarren sailkatu zen, lorpen handia. Aurretik, 2023an, Gazte-luaren Konkista lasterketa irabazi zuen,



Aitzkibil lasterketa, Urdiainen, eta Er-goienako Bira, Unanun.

DAVID FRANCO PEREZ
AIPAMEN BEREZIA. SASKIBALOAIA
ETA BESTELAKO KIROLAK

Saskibaloia, txirrindularitza eta beste
Kirol talde eta proba asko aurrera ateratzeko ezinbestekoak dauden pertsona eta taldekide asko daude. Sarritan ez dira kirol emaitzei begira onenak ez irabazleak izaten; beraien lana taldea aurrera ateratzen laguntzea da, eta beharrezkoa denean babesa ematea. David Franco Perez altsa-suarra da horietako bat. Urte zenbaezinak daramatza Altsasuko CBASK saskibaloitaldean denetariko lanak egiten eta beharrezko laguntza ematen. Emakumezkoen saskibaloio senior taldeko laguntzailea da. Horretaz gain, Sakanako Bizikleta Egunean urtero parte hartzen du; eguraldia ona edo txarra izan, ez du sekula hutsik egiten.



Eta bestelako kirol ekimenetan laguntzeko prest dago beti.

IRATXO MENDI TALDEAN
DENBORA GEHIEN DARAMATENAK
AIPAMEN BEREZIA. MENDIA.

Mendia
Iratxo elkarte 1984an sortu zen, eta hasieratik Iratxo mendi taldea elkarte-ko batzorde garrantzitsua izan zen. Iratxoko mendi taldeko kide gehienak aurretik zegoen Lagun Berriak taldekoak ziren. Mendizale beterrano hauek mendizale-tasuna sustatzen lan nekaezina egin dute urte hauetan. Sakanako Ibilaldia mendi ibilbide ezaguna antolatzeaz gain, urteko mendi irteerak, mendi zikloak eta kanpaldiak prestatzen dituzte, eta Ergako Aginagako Trinitatean makina bat auzo-lan egin izan dituzte, aterpea ahalik eta baldintza hobereenetan mantentzeko. Beterranoen 50 urtetako jarduna dute Irur-



tzungo herriaren eta ingurune-ko mendia- ren alde lanean.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ALTSASU Hitzaldia.

Helduak izan, zaharrik izan gabe. Nik neuk edo besteek mugatzen naute? Itziar Tresen hitzaldia.

11:30ean, jubilatuen etxean.

LAKUNTZA Liburu aurkezpena.

Entre real y dades Oihane Andueza eta Victor Mesanzaren liburuaren aurkezpena.

18:30ean, liburutegian.

LAKUNTZA Hitzaldi-elkarriketa.

Emma Larretaren El mapa de mis cicatrices liburuaren inguruko hitzaldia eta elkarriketa. Biltokik antolatuta.

Biltokin.

19:00 Hitzaldia.

21:00 Pintxopotea.

IRURTZUN Sari banaketa.

Sakanako Kirolaririk Onenen Sariketa, Sakanako Mankomunitateak antolatuta.

19:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Antzerkia.

Iribarne Butacazero konpainiaren antzezlaren emanaldia: Frankismoaren aurka egiten duen satira eta gaurkotasunarekin hitz egiten du begirada kritiko eta ironikoarekin; hiru zatitan planteatuta dago eta espainiar estatuko gertuko

historia eta bilakaera politikoa islatzen du. Sarrerak: 12 euro.

19:30ean, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 13

ETXARRI ARANATZ Lasterketa.

Etxarri Aranazko Gazte Trail lasterketa, Nafarroako Kirol Jokoetako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria; infantilen, kadeteen eta jubenilen lasterketa. Triku Traillek antolatuta.

09:30ean, kanpinean.

ALTSASU Ospakizuna.

Gabon motordunak: mozorrotu zaitez zeu eta motorra. Saria moto-mozorro onenari. Txokogas elkarteak, ADEK eta hainbat komertzioak antolatuta.

17:00etan, Txokogasen (Txunkai).

IRURTZUN Harri jasotzea.

Sakanako Harrijasotzaile eskolaren txapelketa mistoa.

18:00etan, pilotalekuan.

URDIAIN Antzezlana.

Altzor kutxaren bila familiarteko antzezlaren emanaldia, Nafarroako Gobernuak Euskararen egunaren harira antolatutako Gora gora fest!

Programaren barruan.

18:00etan, udaletxean.

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Aretha Gospel taldearen Ispirit musika ikuskizuna: Lidia Insausti, Lide Hernando eta Claudia Moralesek gidatutako Aretha Franklinen omenaldia gospel abestien bidez. Sarrerak: aurretik, 6 euro; egunean, 8 euro.

19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Kontzertua.

Diabulus in Musica & Sakanako Ahotsak, Diabulus in Musica taldearen, Etxarri Aranazko Abesbatzaren eta Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzaren kontzertua. Sarrerak agortuta.

19:15ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 14

OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleen mendi irteera: Saigots – Sorogain, Ezkabako hirugarren etapa; 15,30 kilometro, 668 metro aldapan gora, 397 metro aldapan behera. Bazkaria Auritzeko Loizu jatetxean.

06:00etan, autobus geltokian.

IRURTZUN Kantuz.

Irurtzun Kantuz kalejira, Euskal Ekitaldiak programaren barruan Aizpea Euskara Taldeak antolatuta.

12:00etan, Foru plazan.

OLATZAGUTIA Azoka.

Bigarren Eskuko Elkartasun Azoka, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Felipe Rinaldi fundazioak antolatutako Giza Eskubideen zikloaren barruan.

12:00etan, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Hitzaldi ibilbidea.

Bagiñen, bagaa eta izanen gaa euskararen biziberritzea Etxarri hitzaldi ibiltaria eragileekin (ikastola, eskola, euskalduntze-alfabetatzea, euskara taldeak, tokiko komunikabideak eta UEMA). Bukaeran eragileen materiala salgai. Etxarri Aranazko Udalak, Sakanako Mankomunitateak eta herriko eragileek antolatuta.

13:00etan, plazatik.

OLATZAGUTIA Ikuskizuna.

Xaboi saltzailea ikuskizunaren emanaldia: magia, argiak eta burbultak nahasten dira; XVI. Mendeko Frantziako baso baten kanpoaldean hasten da istorioa. Txabola txiki eta ilun batean xaboi saltzaile gazte bat bizi da, eta gau ekaiztsu batean inguruan dituen objektuekin aurkikuntzak egiten hasten da. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean, 3,5 euro.

17:00etan, kultur etxean.

ASTEARTEA 16

IRURTZUN Kontzertua.

Musika eskolaren kontzertua.

17:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Ipuin saioa.

Estela liburuan oinarritutako ipuin saioa, desirak eta argitasuna bidea izan daitezen.

18:00etan, liburutegian.

ALTSASU Literatur solasaldia.

Lur Gallastegi idazlearekin Zurriola Beach Hostel liburuari buruzko literatur solasaldia, Sakanako Mankomunitateak eta AEK euskaltegiak antolatuta. Parte hartzea baieztatu: euskara1@sakana-mank.eus.

18:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 17

IRURTZUN Kontzertua.

Musika eskolaren kontzertua.

17:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Kontzertua.

Musika eskolako ikasleen audizioak.

17:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Ipuin kontaketa.

Askatasun doinua Mitxel Elortza idazlearen eta Mariñe Jauregi ilustratzailearen Palestinako gatazka haurrei azaltzeko ipuinaren kontaketa, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Felipe Rinaldi fundazioak antolatutako Giza Eskubideen zikloaren barruan.

17:30ean, liburutegian.



ETXARRI ARANATZ Eskubide urratuen oihartzuna erakusketa. Giza eskubideak: Izan beharreko ideala eta betetzen ez den errealitate gordina. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Felipe Rinaldi Fundazioak antolatutako Giza Eskubideen Zikloaren barruan. **Urtarrilaren 5era arte. Liburutegian.**

OLATZAGUTIA Aita Mari: Migrazioa eta giza eskubideak erakusketa. Abenduaren 18ra arte. Liburutegian.

OLATZAGUTIA Sakanako Belenzaleen elkartearen Belenen erakusketa. Astelehenetik larunbatera 17:00etatik 20:00etara eta igande eta jaiegunetan 13:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. **Urtarrilaren 11ra arte. Elkartearen egoitzan.**

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

La voz de Hind
Igandea 14 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Nuremberg
Igandea 14 19:30
Astelehena 15 19:00

Er[✓]iti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

ETXARREN Topagune-solasaldia.

De Extremadura, Sakanara solasaldia: Extremadurako migrazioa Nafarroan aztertu duen Soraia Hurtado Martin Historia eta Ondarean graduatuta eta Hogar Extremeñoa ikerlariarekin solasaldia. Prozesu hori bizi izan duten pertsonen testigantzak eta bizipenak: Jose Palo, Paula Florencio, Francisco Chaparro eta Maria Pinto. Gaztelaniaz. 18:00etan, elkartean.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

Luis Lizarraga kapitaina 1473-1521. Nafarroako askatasunaren indarra Sakanan Juan Luis Larraza Lakuntzaren eleberraren aurkezpena, Euskal Ekitaldiak programaren barruan, Aizpea taldeak antolatuta. 19:00etan, Pikuxar ganbaran.

ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

Harrera Elkartearen aurkezpena. 19:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 18

LAKUNTZA Hitzaldia.

¿Cómo puedo ayudar a mis hijas/os sin saber euskera? Familia erdaldunendako sentsibilizazio saio-hitzaldia. 17:00etan, liburutegian.

IRURTZUN Ipuin kontaketa.

Ventura Ruiz ipuin kontalariaren saioa, 4 urtetik gorako haurrendako. Elebidun. 17:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Liburu aurkezpena.

El último resplandor del ocaso: crónica de una historia familiar silenciada Francisco Idaretaren liburuaren aurkezpena. 19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 19

IRURTZUN Hitzaldia.


De Extremadura al euskara Jon Maiaren hitzaldia. Gaztelaniaz. Pikugabonak Pikuxar elkartearen programaren barruan. 18:30ean, Pikuxar elkartean.

LAKUNTZA Ipuin saioa.


Beldur naiz, eta zer? Aintzane Baleztenaren ipuin saioa. 18:30ean, liburutegian.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 12




Igandea, 14



Larunbata, 13



Astelehena, 15



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ERRENTAN EMAN

Donostiako Bulebarrean logela bakarreko pisua alokairuan: Zerbitzu guztiak bertatik bertara. Idatzi WhatsApp 630490844 telefonora.

Donostian egun solteetarako apartamentua alokagai: Logela bakarreko apartamentua, Bulebarrean kokatua dago. Idatzi WahtsApp 630 490 844 telefonora.

LEHIAKETA

Etzarri Aranazko musika eskolak logotipo lehiaketa antolatu du: Irudia berritzeko asmoarekin, baldintzak eta informazioa eamusikaeskola@gmail.com

IKASTAROA

Ipuruko tailerra Olaztin: Materiala ordaindu behar da, larunbata goizetan izango da. Informazio gehiago Olaztiko Udaltxean.

OHARRA

Sakanako Mintzakide taldeak martxan: Irurtzunen asteartetan 18:30ean Iratxon eta ostiraletan 9:30ean edo 19:00ean Pikuxarren, Lakuntzan asteazkenean 18:30ean jubilatuen elkartean, Arbizun asteartetan 16:00etan eskola zaharrean, Etzarri Aranatzaren ostiraletan 18:30ean Xapateron, Altsasun astelehenean 10:00etan liburutegian eta 16:00etan Gautxorin, ostegunetan 20:00etan Lezean eta ostiraletan 9:30ean Kaixon eta 10:00etan Zubeztia elkartean, Olaztin astelehenean 17:30ean Ogiberrin eta Ziordin ostiraletan 17:00etan liburutegian. Martxan dauden taldeetan sartu daiteke edo berri bat sortzeko proposamena egin daiteke, kontaktua 600 482 224 edota sakana_mintza@aek.eus posta elektronikoa.

Odol emateak Altsasun: Abenduaren 16, 17, 18 17:00 etatik 21:00etara eta 19an 9:30tik 13:15era.

Etzarri Aranazko ludoteka erabiltzeko izen ematea zabalik: LH 6.mailatik DBH3 maila bitarteko nerabeei zuzendutako txokoa. Orduetgia eta informazio gehiago udaltxean.

Irurtzango abesbatzak ahots berriak bilatzen ditu: Tenore eta baxuak bereziki. Interesa baduzu Fermin Idaretarekin harremanetan jarri.

Altsasuko Udalak hezkuntza arloko entitateendako dirulaguntza deialdia zabaldu du: Ikastetxeak, irakaskuntza kooperatibak eta guraso elkartek aurkeztu daitezke deialdira. Informazio gehiago Udaltxean eta web orrian.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

Jarri zure iragarki laburra!
iragarkiak@guaixe.eus

IRACHE
tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Eguberri hauetan, oparitu bazkidetza!



Iragarki laburrak
Argazki lehiaketak
Zozketak
Zorion agurrak
Bazterretik

Duela 25 urte
Iritzi artikuluak
Agenda
Komunitatea
Irratia

Hizketan
Gida komertziala
0 km
Zuzeneko
kontakizunak

www.guaixe.eus
Astekaria
Opariak
Eguraldia
Nahieran

Olaztin eta Ziordian pilota jaialdi bana jokoan

PILOTA Josu Igoa pilotari etxarriarrak Garfe enpresarekin debutatuko du gaur, ostirala, Olaztin jokatu den jaialdian; bihar, larunbata, Ziordiko Doña Luzia Pilota Goxua Txapelketako finalak jokatu dira

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Pilotak asteburu garrantzitsua du Sakanan. Gaur, ostirala, Garfe enpresa errioxarrak jaialdi polita antolatu du Olaztin, 21:00etatik aurrera, Olaztiko Udalaren laguntzarekin. Haste-ko eta behin, lau eta erdiko partida jokatu dute Salcedok eta Murgiondok. Eta ondoren Josu Igoa pilotari etxarriarrak Garferekin debuta egingo du, atzeko koadroetan Aaron Arbizu atzelari eta lagun etxarriarra bidai-de duela. Victor eta Iosu Bergera arruazuarra izango dituzte aurkari. Josu Igoa aurrelari trebea da, Irurtzun klubeko pilotari aparta, eta azkenaldi honetan Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarraren botilleroa. Aurretik Garfera batu diren beste pilotari sakandarrei batuko zaie, eta zortetik onena opa diogu.

Ziordiko Doña Luzia finalak

Olazti eta Ziordia Goxua Taldeak antolatutako Doña Luzia Pilota Txapelketa azken txanpan dago. Aurreko asteburuan finalerdiak jokatu ziren. Maiza-Etxeberriak eta Otxandorena-Etxebestek partida oso estua jokatu zuten, eta 21era berdindu zuten. Azken tantoa Otxandorena-Etxebesteren aldera erori zen eta beraiek sailkatu dira finalerako. Beste fina-



Josu Igoa Joseba Ezkurdiari Arbizun egin zitzaion omenaldian, Lino Arruti agurtzen.



Olaztiko Pilota Goxua Txapelketako finalak jokatu zirenekoa. GOXUA TALDEA

Unai Zubiriaren golek saria dute

FUTBOLA Azaroaren azken asteburuan UEFAko Eskualdeen Kopako lehen fasea jokatu zen Agoitzen. Nafarroako selekzioa multzoburua izan da, Murtziari 0-3 eta Kantabriari 0-4 irabazi eta gero. Unai Zubiria Gartzandia lakuntzarrek partida bakoitzean gol bana sartu zuen. Nafarroa lehen aldiz UEFA-ko Eskualdeen Kopako final laurdenetara sailkatu da.



lerdian Enerizek eta Beratek 17-22 irabazi zieten Izagirre-San Vicenteri.

Biharko jaialdian, hasteko eta behin haurren partidak jokatu dira. Oroitz-Aitorrek (Olazti) Manex-Ibai (Ziordia) izango dituzte aurkari, eta Julen M.-Julen J.-k (Olazti) Xumai-Iñigo (Ziordia). Ondoren, Doña Luzia Pilota Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira, Maiza-Etxeberria eta Izagirre-San Vicenteren artean. Azkenik, final handiko txapelak nor jantziko dituen argituko da Otxandorena-Etxebestek eta Eneriz-Beratek jokatu duten finalean.

Bukaeran sari ematea izango da eta antolatzaileek "sorpresa-ren bat" iragarri dute.

Sakanako Nesken Pala Txapelketa

21. Sakanako Nesken Pala Txapelketan hasierako ligaxkaren hirugarren eta azken jardunaldia jokatu da egunotan. Guz-tira hamazazpi partida daude jokoan. Dorraon ostiral arratsaldean jokatu dira, Urdia-nen ostiral arratsaldean, larunbat goizean eta asteazkenean, eta Lakuntzan igande goizean, arratsaldean eta astearte arratsaldean.

Binakako Txapelketa

Binakako Pilota Txapelketan laugarren jardunaldia jokatu da. Altuna-Ezkurdiak Larrazabal-Mariezkurrena izango dituzte aurkari gaur, ostirala, Bilboko Deportivon. Larunbatean jardunaldi bikoitza dago: Zabala-Martijak Artola-Imazen kontra jokatu dute Urretxun, eta Laso-Albisuk Etxeberria-Rezustaren kontra Iruñeko Nafarroa Arenan. Azkenik, igandean Mallabiak Elordi-Zabaletaren eta Jaka-Iztueta-aren artekoa hartuko du.



Izaskun Beunza, podiumean. FEDERAZIOA

Izaskun Beunza, Nafarroako Kros Laburreko txapelduna

ATLETISMOA San Adrianen jokatuako lasterketan azkarrena izan zen korrikalari olaztiarra

Azaroaren 30ean Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa jokatu zen San Adrianen, sekulako hotzarekin. Emakumezkoetan Izaskun Beunza (Beste Iruñea) olaztiarrak sekulako lasterketa egin zuen eta irabazlea izan zen (17:00), Marta Fernandez bigarrenari (Ardoi) 24 segundo aterata. Proba irabazteaz gain, 35-44 urte arteko master txapelduna izan zen Izaskun, eta bere taldea, Beste Iruñea, txapelduna.

Dantzalekuko podiumak

Aldi berean, NKJ-en txapelketak jokatu ziren San Adrianen, eta Dantzaleku Sakana eskolako neska-mutilak ikusgarri aritu ziren. 16 urtez azpikoan Ekhi Guirado hirugarren izan zen eta Sihets Agirre laugarren. 14 urtez azpikoan Eider Perez bigarren sailkatu zen, eta 10 urtez azpikoan Danel Lafuente bigarren.

Bihar, Etxarri Gazte Trail

Dantzalekuko trail taldeak hitzordu garrantzitsua du bihar, abenduak 13, larunbata, Etxarri Aranazko kanpinean. 9:30etik aurrera Etxarri Aranatz Gazte Trail jokatu da, NKJetako Txapelketarako baliagarria. Jubenilak (10 km, 560+), kadeteak (8 km, 330+) eta infantilak (6,5 km, 150+) ariko dira lanean.



Abenduaren 3an denboraldiko aurkezpena egin zuen Altsasu Kirol Elkartek. Jende asko ezin izan zen egon, eta datorrenarako bestelako data baten alde egingo da.

Altsasu K.E., erronkaz erronka

FUTBOLA Altsasu Kirol Elkartek 2025/2026 denboraldiko hemezortzi taldeak aurkeztu zituen Dantzalekun. 310 jokalaria eta 30 entrenatzaile, zenbaki potoloak, eta egitasmo bakarra: futbola eta areto futbola sustatuz, gozatzea

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Altsasu Kirol Elkartek abenduaren 3an aurkeztu zituen 2025/2026 denboraldiko taldeak, ligen geldialdia aprobetxatuz. Aurtan hemezortzi talde dira guztira, hamasei futbol talde eta bi areto futbol talde. Guztira 310 jokalaria inguru dira, eta entrenatzaile eta teknikariak, 30 inguru. Guztia koordinatzen, buru-belarri, Altsasu Kirol Elkarteko hiru futbol koordinatzaileak: Aaron Ramos, Jenni Ubeda eta Goyo Rodriguez.

Hemezortzi taldeak
Hamasei futbol taldeetatik hamahiru gizonezkoenak dira: aurrebenjaminak (Iñaki Cristobal entrenatzailea), benjaminak A (Iñaki Cristobal), benjaminak B (Aitzol Hernaiz eta Julen Arregi), kimuak A (Asier Somocurcio eta Mikel Rodriguez), kimuak

B (El Mahdi Mabchour eta Jose Exposito), kimuak C (Eneko Galan eta Mikel Zufiaurre), bigarren infantila (Aaron Ramos eta Aritz Zabala), lehen infantila (Bruno Miguel Maia eta Silviu Socea), bigarren kadetea (Luis Alberto eta Luis Byron Medina), lehen kadetea (Julian Sevilla eta Eneko Guajardo), bigarren jubenila (Alejandro eta Fernando Alberto Morais), lehen jubenila (Peio Goikoetxea) eta preferente taldea (Ivan Claver). Nesketan hiru talde dira: infantilak (Raul Agirre eta Cristian Davila entrenatzaileak), jube-

**"JENDEA ASKO
INPLIKATZEN DA ETA
HORI DA GEHIEN
ESKERTZEN DUGUNA"**
GOYO RODRIGUEZ

nil-kadetea (Nerea Arellano eta Elene Andueza) eta hirugarren maila (Gorka Chamorro, Adrian Claver eta Ekai Urkijo).

Haiei areto futboleko bi taldeak gehitu behar zaizkie: hirugarren mailako taldea (Miguel Barrero eta Goyo Rodriguez), eta aurtan sortutako talde berria, lehen maila autonomikoa (Goyo Rodriguez eta Iselmu Buzeid).

Altsasu Kirol Elkarteko junta
Hemezortzi taldeak eta Dantzaleku kudeatzea ez da lan makala. Joan zen urteko juntan ez da aldaketa aipagarriarik egon. Jesus Sayasek jarraitzen du lehendakari, Iñaki Cristobalek lehendakariorde, Jenni Ubedak diruzain, Leire Gonzalezek lehen idazkari, Laura Crespok bigarren idazkari eta Aaron Ramosek, Goyo Rodriguezek eta Elisabeth Fresnedak bokal. Juntara jende

gehiago batzeko deia egin dute. "Ateak zabal-zabalik ditugu" nabarmendu dute hiru futbol koordinatzaileek. Koordinazioan hiru izatearen onurak defendatu dituzte. "Futbol taldeak koordinatzeko hiru kide egotea dugun onenetakoa da, erabakiak hartzerako garaian iritzi ezberdinak ditugulako eta guztiak aintzat hartzen direlako. Alde horretatik, neutralagoa da. Erabakiak hartzerakoan ezberdin pentsatzen duten hiru buru daude, eta hartutako erabakia uniformeagoa da, osoagoa".

Dantzalekuko taberna

Taldean martxa emateko lanari Dantzalekuko taberna kudeatzeko ardura gehitu zioten iaz. Lau urteko kontratua sinatu zuten Altsasuko Udalarekin, eta Dantzalekuko taberna Altsasu Kirol Elkartearen diru iturri garrantzitsuenetako bat bilakatu da ordutik. "Lan handia da, baina egin beharrekoa, diru iturri garrantzitsua delako. Bestela, itota geundeke" argi du Jenni Ubedak.

Izan ere, klubak aurrera egingeko dituen gastuak handiak dira, "eta jendea ez da kontziente". Esaterako, futboleko jube-

**"DANTZALEKUKO
TABERNA DIRU ITURRI
GARRANTZITSUA
BILAKATU DA"**
JENNI UBEDA

niletatik gora jokalaria bakoitzaren fitxagatik ordaindu behar da, eta kategoria horretatik behera Nafarroako Futbol Federazioko txapelketetan lehiatzen den talde bakoitzarengatik izena emate kuota ordaintzen da. Arbitroei ordaindu behar zaie, jasotako txartel hori edo gorri bakoitzeko kopuru bat ordaindu behar zaio federazioari, jokalaria guztiek pasa beharreko mediku azterketak pagatu behar dira, eta bestelako ohiko gastuak: jokalarien ekipazioak, materiala, entrenatzaileak, Dantzalekuko eta Zelandiko azpiegiturak... Areto futbolekoan, adibidez, hirugarren mailako jokalaria bakoitzak 300 euro ordaindu behar ditu soilik bere mutualitatea ordaintzeko. Horri beste guztia gehitu behar zaio. "Arbitro bat Zelandira datorren bakoitzean 240 ordaindu behar zaizkio, txartel hori bakoitzeko lau euro ordaindu behar dira... eta abar. Jendea ez da kontziente. Babesleak ditugu eta ekimenak antolatzen ditugu, bestela..." nabarmendu du Goyo Rodriguezek.

Horretatik, tabernatik etortritako irabaziak eta martxan jarri dituzten bestelako ekimenekin lortutakoak, udako futbol campusak edo abenduaren 27ko areto futboleko 12 orduak, kasu, zerutik etorritako ogia dira, bazkideen kuota bezala.

380 bazkide inguru

Altsasu Kirol Elkartek 380 bazkide inguru ditu, urtero 60 euro ordaintzen dutenak. Kimuetatik gorako jokalarien familiek bazkide egin beharra dute, gastuekin laguntzeko. "7.000 biztanletako herri batean 380 bazkide izatea ez da gehiegi, baina jendeari kosta egiten zaio bazkide egitea. Ea kluba sustatzeko gehiago animatzen diren".

Gurasoen inplikazioa

Nolanahi ere, hiru futbol koordinatzaileek klubaren martxaren balorazio positiboa egiten dute. "Jendea, junta, gurasoak... asko inplikatzeko dira eta niri horrek poztu nau gehien. Uste dut lan egiten dugula ikusten dutela, ia egun guztia hemen sartuta gaudela, eta zerbait eskatzen dugunean asko inplikatzeko dira. Esaterako, elurra egin zuenean 60 pertsona bildu ziren Dantzaleku garbitzeko, tabernarako boluntarioak eskatzen ditugunean gurasoek laguntzen dute..."

Eta hori da gehien eskertzen duguna, jendearen inplikazioa, hori klubaren batasunaren erakusle delako. Klubaren batasun horrek bulkatzen nau honekin guztiarekin jarraitzea" ondo-ondoztatu du Rodriguezek.

Hirugarren mailako erronka

Emakumezkoen Altsasu talde nagusiak iaz sekulako denboraldia egin zuen. Emakumezkoen preferente mailako liderra izan zen, partidarik galdu gabe; 17 irabazi eta 3 berdindu zituen. Horrela, mailaz igo eta aurten emakumezkoen hirugarren mailan jokatzeko ari da. Iazko egituraren oinarrituta, taldea berritu da. Sonia Alonso beterranoak taldea utzi du, eta Laida Garziandia, Ainara Macuso, Eider Vicente, Elene Andueza eta Angela Moreno sartu dira. Gainontzekoak iazko blokekoak dira. Adrian Claver, Gorka Chamorro eta Ekai Urkijo dira entrenatzaileak. "Helburua hirugarren mailari eustea da". Kategoría aldatuta, jakina, nabaritzen da. "Taldeen asko nabaritzen da, maila bestelakoa da. Hasieran kategoriari tamaina hartzea kostatu zitzaion eta partida dezentetako galdu zituzten, baina azken aste hauetan nabarmen egin dute gora, hiru garaipen lortu dituzte eta sentsazioak oso onak dira".

Preferentean, gora begira

Gizonezkoen erregional mailan iazko ligako txapelduna izan zen Altsasu, partidarik galdu gabe (31 irabazi eta 3 berdindu), eta igoera fasean Urrozterra mendean hartuta igo zuen preferente mailara. Aurten kategoría berriari egokitzen ari da; maila aldatuta agerikoa da. Ivan Claverrek jarraitzen du entrenatzaile eta taldeak iazko egitura du, aldatuta gutxi batzuekin: Angel Vergarak, Imanol Lobok eta Jose Luis Martinek taldea utzi dute eta Unai Irigoien eta Armstrong Fah iritsi dira taldera; gainontzekoak iazko blokekoak dira. "Saltoa nabaritzen da, zailtasunak gabe. Nolanahi ere, guztia kontuan hartuta, Altsasu preferente taldearen helburua mantentzea eta goiko postuei begiratzea da, igoera postuetan sartu eta igoeragatik borrokatzea". Egun Altsasu bosgarren da, eta azkeneko lau partidetatik bi berdindu eta bi galdu ditu. Bide onean dago, ilusioekin. Ildo

honetan, Goyo Rodriguezek beste taldeen dauden altsasuarrak botatzen ditu faltan. "Nabarmen-tzen diren jokariak Iruñeko edo beste probintzietako taldeetara doaz. Horiek guztiak izango bagenu, lehen maila autonomikora edota hirugarren mailara igotzeko taldea izan genezake. Haiek itzultzea polita litzateke. Eta entrenatzaileekin berdin. Osasuna kluba entrenatzaile altsasuarrez beteta dago".

Preferente taldearekin batera erregional mailako taldea sortzeko ahalegina egin zuen udan Altsasu Kirol Elkarteak, "inorkanpoan jokatu gabe ez geratzeko", baina ahalegina ez zen aurrera atera. "Mundu guztiak preferentean jokatu nahi zuen, baina preferentean ez zegoen denondako tokirik. Bestalde, erregional maila ez da erraza, maila lehiakorra da. Izena ematearekin ez da nahikoa, bertan egotea irabazi beharra dago. Azkenean, ez zen atera".

Areto futboleko, bi talde

Iaz areto futboleko lehen maila autonomikoa irabazi zuen Altsasuk Arbizuren gainetik, soilik bi partida galduta. Gainera, Kopa Altsasuk irabazi zuen Arbizuri. Mailaz igo, eta aurten hirugarren mailan lehiatzen ari da Altsasu. "Aldaketa izugarria da, talde oso onak daude. Beste mundu bat da". Altsasu zortzigarren da, eta hiru partida irabazi ditu. "Helburua hirugarren mailan mantentzea da. Barrerok eta biok iazko blokea mantendu dugu. Iñaki Mendozak, Mikel Ruizek eta nik neronek taldea utzi dugu eta Xabier Ormazabal eta Christian Leon etorri dira. Gutzika, ari gara" dio Goyo Rodriguezek. Aurten talde berria sortu dute, lehen maila autonomikoa lehiatzen ari dena. "Taldea berria da, osatze bidean dagoena. Lanean ari gara, gustura".

Gainontzeko taldeen helburua futboleko trebatzea eta kirolaz gozatzea da. "Jubenilen A taldea bigarren mailan dago eta helburua lehen mailara igotzea da, eta kadeteen A taldearena kadeteen lehen preferentean mantentzea. Gainontzeko taldeekin ez dago helbururik. Futbol eskola garen heinean, trebatu daitezela, parte hartu eta ongi pasa dezatela. Taldea osatu dezatela, konpromiso hori har dezatela. Emakumezkoen taldeak oso ongi ari dira, oso pozik gaude".

Altsasu K.E. 25/26, talde nagusiak



Emakumezkoen hirugarren mailako taldekideak.

Emakumeen hirugarren mailako taldea Emakumezkoen Altsasu taldea preferente mailako izarretako bat izan zen iaz, eta hirugarren mailara igo zen. Hasieran kategoría berrira moldatzea kosta egin zitzaion, baina azken jardunaldietan gora egin du nabarmen.



Preferente mailako Altsasu, partida baten ostean. ALTSASU K.E.

Gizoneen preferente mailako taldea Aurreko denboraldian erregional mailatik preferente mailara igotzea lortu zuen Altsasuk. Preferente mailako koska hori nabaritzen da, baina taldea kategoría berriari tamaina hartzen ari da eta geroz eta erosago dabilta.



Aurkezpenean taldekide askok lan eguna zuten eta gutxi batzuk bildu ziren.

Areto futboleko hirugarren eta lehen maila autonomikoko taldeak 2025/2026 denboraldian gizonezkoen bi areto futbol talde ditu Altsasuk, bata hirugarren mailan lehiatzen dena eta bestea lehen maila autonomikoa. Denboraldia ilusioz hasi dute.

FUTBOLA Altsasun, garaipenak; Etxarrin eta Lakuntzan

Emakumezkoen hirugarren mailan Altsasuk 6-0 irabazi zion Ardoiri. Altsasu zortzigarren da, eta igandean, 16:00etan, Tudelano du aurkari Erriberan.

Gizoneen preferentean Altsasuk azken jardunaldian 0-1 irabazi zion Beriaini eta dagoeneko bosgarren da sailkapenean. Igandean, 15:30ean, Larragako San Miguel hartuko du Dantzalekun.

Gizoneen erregional mailan, ligako azken jardunaldian Lakuntzako Itxesalden derbia jokatu zen eta Etxarri Aranatzek 0-2 irabazi zion lagun Arteari. Etxarrik lider jarraitzen du eta larunbatean Lagunak B du aurkari Barañainen (16:00). Lagun Artea seigarren da eta larunbatean Baztan B hartuko du Itxesalden (16:00).

Bestalde, Nafarroako Futbol Federazioko kopako hamabigarren multzoan San Jorge izan da lehena (9 puntu), Etxarri bigarren (6 puntu) eta Lagun Artea laugarren (puntuak ez). Bi onenek egin dute aurrera.

ARETO FUTBOLA Sakanako taldeak, martxa onean

Gizoneen hirugarren mailan Altsasuk 7-5 irabazi zion Garbayo Chivite Cintruenigori, eta Aralar Mendik Universidad de Navarra 5-4 hartu zuen mendean. Larunbatean Altsasuk Universidad de Navarra du arerio Iruñean (16:00) eta Aralar Mendik Kirol Sport Orkoien (17:45).

Emakumezkoen lehen maila autonomikoa Xota A-k lider sendo jarraitzen du, Mendiak B-ri 8-0 irabazita. Xota B-k huna berdindu zuen Orvinairekin. Asteburuan Xota A liderrak atsedean hartuko du eta larunbatean Xota B-k Txantrea B du aurkari Atakondoan (10:00).

Gizoneen lehen maila autonomikoa Arbizuk launa berdindu zuen Oliterekin, Xotak 0-4 irabazi zion Anaitasunari eta Altsasu eta Tafaren partida atzeratu egin zen. Arbizuk Los Sauces du aurkari igandean Eskirozen (12:30), eta larunbatean Xotak Mendiak hartuko du (12:45) eta Altsasuk Olite du aurkari Erriberin (17:00).



Asier Estarriaga eta Israel Arbizu lasterketa buruan egon ziren ia proba osoan. Azken metroetan Arbizuk eraso jo zuen.

Arbizu eta Beraza, estreinakoz Zubeztian

ATLETISMOA Altsasuko 44. Zubeztia Elkartea Lasterketa-4. Candi Arnanz Memoriala lehenengoz irabazi zuten Israel Arbizu eta Maalen Beraza sakandarrek, primerako lasterketa eginda. Proba herrikoia giro ezin hobean jokatu zen

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Primerako eguraldiarekin eta giro hobeagoarekin jokatu zen 44. Zubeztia Elkartea Lasterketa (10 km), aldi berean 4. Candi Arnanz Memoriala zena, probaren arimetako bat izan zenaren omenez. Zubeztiak Dantzaleku Sakana atletismo klubaren eta makina bat babesleren laguntzarekin antolatutako lasterketa korrikalariak animatzera jende asko atera zen Altsasuko kaleetara.

Guztira 102 korrikalarik eman zuten izena, baina 93k parte hartu zuten, 81 gizonezko eta 11 emakumezko. Horietatik erdia sakandarrak ziren, 44 sakandar, tartean 22 altsasuar.

Lasterketa erritmo handian hasi zen. Izan ere, lehenengo itzulian azkarren egiten duen korrikalariak saria du, ardo botila eta gazta. Iñigo Lopez gasteiztarrarendako izan ziren. Berehala, faboritoen taldea jarri zen aurretik. Asier Estarriaga eta Israel Arbizu Hiru-Herriko

taldekide etxarriarrak jarri ziren aurretik, Alberto Diaz gasteiztarra, Angel Vazquez lazkaotarra eta Uitziko Raul Amatriain gertu zituztela. Azken itzulian, San Juan kalean eraso jo zuen Arbizuk, eta bakarrik iritsi zen helmugara Diazen (32:42), Vazquezen (32:45) eta Estarriagaren (33:01) aurretik, Zubeztian lehen garaipena lortuaz. Aritz Etxeberria lehen altsasuarra izan zen, zazpigarren (33:59), eta Ivan Sobredo Zubeztia elkarteko lehen (34:03).

Emakumezkoetan, lehen txanpan Olatz Azazeta altsasuarra jarri zen aurretik, baina bigarren itzulian Maalen Beraza irintarra eta Elena Beristain gerturatu zitzaizkion. Hirugarren itzulian Maalen Berazak erritmoa bizkortu zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (41:33), Beristainen (42:05) eta Azazetaren (42:37) aurretik. Zubeztian lehenengoz aritu zen Beraza, eta txapela jantzi zuen. Bukaeran auzate ederra zuten zain Zubeztian.

Sakandarrak

Gizonak

1. Israel Arbizu	32:40
4. Asier Estarriaga	33:01
7. Aritz Etxeberria	33:59
10. Ivan Sobredo	34:03
11. Jorge Azanza	34:16
12. Sergio Garcia	34:29
15. Eukeni Goikoetxea	35:35
17. Ruben Garcia	34:29
18. Ander Iraizoz	36:21
23. Asier Pellejero	36:55
24. Felix Benjumea	37:08
25. Jon Plissonneau	37:42

Emakumeak

1. Maalen Beraza	41:33
49. Olatz Azazeta	42:37
65. Maite Zabaleta	48:04
84. Irantzu Lasa	56:07
85. Mireia Larraza	56:07

*Oharra: Sakandarren sailkapen osoa: www.guaixe.eus

Nola planteatu duzue lasterketa?



ISRAEL ARBIZU ALBERTO
ZUBEZTIKO IRABAZLEA

"Esprintean konfiantza handia dut; ongi atera da"

"Hirugarren aldiz aritu naiz Zubeztian, oso gustuko dut. Etxeko probak dira hobereak; jendeak zure izenarekin animatzeak, horrek izugarri motibatzen du. Asier eta biok aurrean jarri gara, txandaka, eta azken itzulian erritmoa azkartu dut. Nire esprintean konfiantza dut, eta proba lehenengoz irabaztea lortu dut. Aurretik bigarren izan nintzen. Oso pozik nago. Abenduaren 21ean Altsasun jokatu den Nafarroako Kros Txapelketa eta Altsasuko San Silvestrea dira hurrengo erronkak".



MAALEN BERAZA ETXARRI
ZUBEZTIKO IRABAZLEA

"Oso lasterketa polita iruditu zait, giro handikoa"

"Iaz futbola utzi nuenetik hasi nintzen korrika, lehen aldia da Zubeztian aritu naizela. Igandean Gasteizko Maratoi Erdira goaz, eta prestatzeko oso ondo etorri zait. Gainera, nola ez gara etxeko proba batean arituko? Askok gustatu zait, giro oso ona dago. Ez nuen irabaztea espero, Olatz Azazetak gehiago korritzen duelako. Hirugarren bueltan aurrera egin dudanean segiko zidala uste nuen, baina ez dago guztiz ongi, eta, azkenean, irabazi dut. Oso pozik, Onddo Lasterketa ere irabazi nuen. Altsasuk zortea ematen dit".



Maalen Beraza lehen aldiz aritu zen Zubeztia lasterketan, eta izugarri gustatu zitzaion.



Bukaeran podiumeko zenbait kidek talde argazkia egin zuten.



Xabat Illarregi kantuan finalistekin; eskuinetik bigarrena Eneko Lazkoz. JOSU SANTESTEBAN / NBE

Xabat Illarregi Nafarroako txapelduna

Anaien arteko buruz burukoa jokatu zuten azaroaren 29an izandako Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean, Nafarroa Arenan. Eneko Lazkoz etxarriarra, Sakanako ordezkari bakarra, bosgarren sailkatu zen

SAKANA
Lehenengo aldiz jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala Nafarroa Arenan, azaroaren 29an, eta aretoa bertsolariz bete zen: 2.500 bat lagun elkartu ziren bertan txapelketaren azken egunaz gozatzeko eta zortzi finalistek lana entzuteko. Xabat Illarregi leitzarrak jantzi du 2025eko txapela, Joanes Illarregi anaiarekin buruz burukoa jokatu ondoren. 15:30ean zabaldu ziren Nafarroako Arenako ateak bertsozaleak hartzeko, eta 17:00etan igo ziren oholtzara bertsolari finalistak. 24 bertsolarirekin hasi zen txapelketa, hiru faseren eta zortzi saioen ondoren, zortzi igo ziren

finaleko oholtzara; zozketak erabakitako ordenean aritu ziren kantari: Ekhiñe Zapiain Arlegi, Eki Mateorena Zozaia, Julio Soto Ezkurdia, Saioa Alkaiza Guallar, Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra eta Sarai Robles Vitas.

Sailkapena
Ariketaz ariketa lehenengo atala bete ostean Illarregi anaiek lortu zuten puntu gehien, eta eurek kantatu zuten buruz burukoan. Azkenean, Xabat Illarregik jantzi zuen txapela Sergio Barandiaranen eskutik: 1205 puntu lortu zituen. Haren atzetik Joanes Illarregik 1198.5 puntu lortu zituen.

Hirugarren sailkatua Saioa Alkaiza izan zen, 732 punturekin, eta laugarren sailkatua Julio Soto 724,5 punturekin, 2023ko txapelduna izan zena. Eneko Lazkoz etxarriarra, aurreko edizioko txapeldunordea, 709 puntu lortu zituen, eta bosgarren sailkatu zen. Sarai Roblesek 695,5 puntu lortu zituen, Ekhiñe Zapiainek 666 eta Eki Mateorena 637 puntu, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren postuetan sailkatu ziren, hurrenez hurren.

Gai jartzaile lanetan Ainhoa Larretxea Agirre eta Ander Arribu Arriola ibili ziren, eta zazpi epailez osatutako epaimahaia izan zen, tartean Joseba Beltza etxarriarra.

Hamargarren urteurrenean dantza kalera atera zuten

Azaroaren 22an ospatu zuen Irantzu Gonzalez dantza eskolak urteurrena eta Altsasuko plazak bete zituen

ALTSASU
2015eko azaroaren 21ean mustu zuen Irantzu Gonzalez dantzariak haren dantza eskola, Altsasun, eta hamar urte eta egun bat beranduago hamargarren urteurrena ospatu zuen. Ikuskizun

bat egin beharrean, dantza plaketara atera zuen dantzariak, eta Altsasuko Amandrea, Iortia, San Juan, Zumalakarregi eta Txiribuluko plazetan dantza ikasle taldeek dantza bat egin zuten, denak batera, Kizunguzungu.

Behin koreografia amaituta kalejiran joan ziren Foru plaza, eta bertan Ohiuarima dantza taldearen eta Dantzarimaren koreografia bat izan zen, eta dantzari guztiak elkarrekin Kizunguzungu abestia dantzatu zuten berriz ere.

Ospakizunak ikasleendako txokolate janarekin eta dantzekin jarraitu zuen, eta eskolako komunitatearendako eta ikasle adin nagusiendako bazkaria izan zen ere, Gure Etxean. Zuzendariak omenaldiak jaso zituen.



Lur Gallastegi idazlea. UTZITAKOA

Lur Gallastegi idazlearen literatur solasaldia, Altsasun

Sakanako Mankomunitateak eta euskaltegiak antolatu dute abenduaren 16ko solasaldia

ALTSASU
Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak, AEKKo Itxesi euskaltegiak eta Nafarroako Gobernuak Lur Gallastegiren literatur solasaldia antolatu dute, abenduaren 16an, asteartea, 18:30ean, Iortia kultur gunean. *Zurriola Beach Hostel* liburuaren inguruko solasaldia izanen da, eta besteak beste euskaltegiko ikasleak eta Mintzakideko parte hartzaileak daude solasaldian parte hartzeko gonbidatuan; hala ere, sarriera librea da eta nahi duenak parte har dezake; aurretik baieztatzeko mezua bidali behar da euskara1@sakana-mank.eus helbidera.

Lur Gallastegi Zendegi bizkaitar idazlea da, itzulpengintzan lizentziatua eta ingeleseko irakaslea ogibidez. 2018. urtean Mikel Zarate Haur Literaturako Saria irabazi zuen

Saharako itsasoa liburuarekin, eta azken bi urteetan Kakao zaporeko gauak, Bahiketa jolas-parkean, Maskara lapurtuaren bila, Arrakastaren bila eta Zurriola Beach Hostel liburuak argitaratu ditu.

Solasaldia
Zurriola Beach Hostel liburua, hain zuzen, izango da Sakanako Mankomunitateak eta AEKK antolatutako solasaldiaren gaia; sinopsiaren arabera, Zurriola Beach Hostel ostaturia izango da duela mende bateko bi familien bizipenen agertokia eta haien ondorengo gazte batzuen elkarbizitzaren eta ataka zailen eszenatokia. Gerra batetik hiriaren turistifikazioak eta etxajabeen lukurrerietara. "Jakinmina piztu eta bukaeraino eusten dion trama korapilatsu batean nahasita daude guztiak.



San Juan plazan dantzan. UTZITAKOA

Abesbatzen Eguberrietako kontzertuak ate joka

Erkudengo Amarena abenduaren 20an eta Etxarriko Abesbatzarena 21ean izanen dira, herrietako elizetan

SAKANA

Iortia kultur gunean, bihar, Diabulus in Musica taldearekin egingen duten ikuskizunaren ondoren, Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Erkudengo Ama Abesbatzak neguko kontzertuak emanen dituzte.

Abenduaren 20an, larunbata, 21:30ean, egingen du Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzak *Gabonetako kontzertua*, herriko elizan. Ainhoa Beramendi piano jotzaileraren parte hartzea ere izango dute, eta kontzertua Maripiri omenaldi bat ere izango da, Enrike Zelaiaren laguntza bereziarekin.

Abenduaren 21ean, igandea, 19:00etan, Etxarri Aranazko elizan, *Ur goiena, Ur barrena* kontzertua emanen du Etxarri Aranazko Abesbatzak. Kontzertuan koru txikiak ere parte hartuko du, eta bi zuzendari izanen ditu: Javier Igoa eta Xabier Garziandia. Urte hasieran Alicia Armendarizek eszedentzia hartu zuen, eta ordezkioak ezin zuela jarraitu esan zien udan. Hasieran Garziandiak hartu zuen gidaritzapean, baina ezin zuenez Igoari eman zion ardura; 21eko kontzertuan biak ariko dira.



BAZTERRETIK

EKHIÑE LUMBRERAS FERNANDEZ DE ARROIABE

Soinuaz haratago: grabatu ezin daitekeen magia

Dena gero eta digitalagoa bihurtzen ari den mundu honetan, zuzeneko musika ia ekin-tza politiko bihurtu dela sentitzen dut. Artea errealitatean bizi dela gogorarazten digun esperientziak ari naiz, soinuak airean dar-dar egiten duenaz, eta ez entzungailu batzuetan. Kontzertu bat lanorduen, erabaki artistikoen, itzalean magia egiten duen talde tekniko baten eta editatu eta erreplikatu ezin den erakuspen baten emaitza da. Zuzeneko batean gaudenean, ahalegin ikusezin hori guztia baloratzen ari gara.

Badakit ez dela erraza. Sarrerak garestiak dira, eta jende guztiak ezin du horrelako bat egin. Baina, hain zuzen ere, horregatik, uste dut haren balioa aldarrikatu behar dugula: zuzeneko musika kultura da, komunitatea da, emozioak filtrorik gabe partekatzen ditugun espazioa da. Kontzertu batera joatea, nolabait, batzuetan dena sinplifikatu nahi duela dirudien mundu batean artearen existentzia defendatzea da.

Joan den azaroaren 22an, Nil Molinerrek Nafarroa Arenan emandako kontzertuan, berriro sentitu nuen musika pertsonen arteko zubi bihurtzen denean bakarrik agertzen den indar hori. Ez zen bere taldea bakarrik eszenatokian; ikusleen energia zen, argiak "crescendo" bakoitzarekin batera, isiltasunak ikusminez beteta. Han ulertu nuen, beste behin, kontzertu bat ez dela erreproduzitzen: arnasten, baizik. Eta emozio nahasketa hori erreplikaezina dela.

Zuzeneko kontzertu batera joaten naizen bakoitzean sentitzen dudarekin atera nintzen berriz ere: zuzeneko musika gehiago behar dugu, komunitatea izaten jarraitzen dugula gogorarazten digulako. Oraindik, elkarrekin hunkitzeko gai garela. Horregatik, ahal dugunean, kontzertuetara joateko apustua egin dezagun. Kultura direlako, bizitza direlako eta zarataz betetako mundu batean, zuzeneko musika, dena zentzua hartzen duen leku bakarrenetakoa delako.

Ikuskizun bakarra

Diabulus in Musica & Sakanako Ahotsak kontzertua izanen da bihar, abenduak 13, Iortia kultur gunean. Metal sinfoniko taldearekin batera Etxarri Aranazko Abesbatza eta Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzak ariko dira, ibarrerako "opari" bat

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Javi Galeano multimedia sortzaile altsasuarrak "betidanik" izan du gogo "nire ustez gutxietuta dagoen artista batekin hemen zerbait egiteko". Keu Agirretxea izan du beti buruan. "Jendeari iristeko modu bat, agian beste modu batean ez zena joango, zinemaren Star system deitzen dena da". Hau da, artistarekin batera publikoarendako ezagunak egiten diren beste artista batzuk jartzea. Horrelako zerbait egin du Diabulus in Musica & Sakanako Ahotsak ikuskizunean. "Zuberoa eta Gorka, Diabulus in Musica taldeko abelaria eta teklista, ezagutzen nituen haien zuzenekoren batean argazkiak egin nizkielako, eta kasualitatez Irurtzango azokan topatu nintzen haiekin". "Askotan" joaten dira taldekideak Irurtzunera, "eta managerrarekin harremanetan jarri ninduten, eta aurrera". Bihar izanen da kontzertu handia, Iortia kultur gunean, baina sarrerak bi egunetan agortu ziren. Datorren urterako esperientzia erreplikatzeko nahiko luke promotoreak.

Kontzertuan ikusi zuenean "harrigarria" iruditu zitzaion Galeanori, "ez nintzen oso zalea, baina zerbait ona denean, ona da". Diabulus in Musica taldeak metal sinfonikoa egiten du, eta nazioartean hemen baino ezagunagoak dira. Diabulus in Musica taldeko Gorka Elso eta Zuberoa Aznarez musika klasikoarekin eta mundu koralarekin "oso lotuta" daude, "taldea sortu genduenetik gure musika beti pentsatuta egon da metal talde, orkestra eta koru baterako". Horregatik egiten duten generoa "metal sinfonikoa" deitzen dela azaldu dute. "Gure disko guztietan badaude

moldaketa orkestral eta koralak abesti guztietan, arazoa da nola eraman hori zuzenera, oso zaila baita espazio eta eskakizun teknikoengatik". Ahal denean "etxetik gertu" jotzen dutenean sei eta zortzi ahots arteko koru txiki bat eramaten dutela esan dute, "eta behin bakarrik, orain dela 10 urte, aukera izan genuen Balaarten orkestra sinfoniko oso batekin eta Nafarroako Ganbera Abesbatzarekin jotzeko".

Abesbatzak

Altsasuko ikuskizuna bakarra izango da: "Javi Galeanok kontzertu hau proposatu zigunean zoragarria iruditu zitzaigun; halako esperientzia bat berriz bizitzeko aukera izatea". Hasieran Etxarri Aranazko eta Altsasuko abesbatzek proposamen musikalari nola erantzun zioten "zaila izan zuten, musika koral tradizionala abestera ohituta baitaude". "Oso ausartak izan dira horrelako kontzertu batean murgiltzean, taldearen musika bolumenagatik norbere burua entzuteko zailtasunak sortzen dira, klaketatik segundu bakar batena ere irten ezin izatearekin...". Horretarako zuzendariak kaskoekin eta metronomoarekin zuzendu beharko dute, "abenduaren 1ean aukera izan genuen haiekin entseatzeko eta zoragarria izan zen. Askok inplikatu dira proiektuan, eta ederra izan zen haiek zuzenean entzutea. Batez ere, gure musikarekin gozatzen ikustea". Taldekideak oso eskertuta daude.

DIABULUS IN MUSICA TALDEA ETXARRIKO ETA ERKUDENGO AMA ABESBATZAREKIN IZANGO DA IORTIAN

Galeanoren hasierako ideia "Sakana osoa ikuskizun honen inguruan elkartzea" zen, eta horregatik hasiera batean Irurtzango Abesbatza ere sartzea pentsatu zuen. "Honela adimenak beste mundu desberdinetara irekitzea lortuko dugu, aurreiritziekin bukatu". Biharko ikuskizunean, beraz, Etxarri Aranazko Abesbatzak eta Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatzak parte hartuko dute, guztira ia 70 bat abeslari. Galeanok azaldu duenez, abesbatzek "oso ongi" hartu zuten horrelako proposamen "desberdin" bat; "erronka bat bezala hartu zuten". Inma Arroyo Erkudengo Ama Abesbatzako zuzendariari esan zion lehenengoz, "nire musika irakaslea izan zen duela urte pila bat", eta taldekideak eta abesbatzak harremanetan jarri eta partiturak pasa ondoren, Galeano berarekin elkartzen zenean esaten zion entsegutik ateratzen zirela, "burua mugituz", eta asko gustatzen zitzaizela abestiak entzuteko "beharra" zutelako: "Ezin duzu ihes egin. Lehen aldi baten entzuten duzunean agian ez dizu atentzioa deitzen, baina behin eta berriro entzun ondoren, detaile gehiago entzuten dituzu eta geroz eta gehiago gustatzen zaizu".

Proposamena "ilusio handiarekin, baina pixka bat kezkaekin ere" hartu zutela esan du Inma Arroyok. "Ez dugu inoiz horrelako musika abestu, eta ez genekeen nola egingo genuen...". Esperientzia "oso polita" izan dela gaineratu du. Kontzerturako prestatzeko "denbora eta lan asko" suposatuta zaiela aitortu du, "baina gero eta politagoa iruditu zaigu, eta taldearekin entseatu ondoren, lasaiago hartu dugu". Oso ongi entzuten dela iruditu



Diabulus in Musica & Sakanako Ahotsak kontzertuaren entsegua. NEMOSINE AUDIOVISUAL



Gorka Elso eta Zuberoa Aznarez Diabulus in Musica taldeko kideak. NEMOSINE



Abesbatzako kideak entseguan. NEMOSINE AUDIOVISUALES



Lehen entsegua. NEMOSINE AUDIOVISUALES

zaie Erkudengo Ama Abesbatzako kideei. "Jendeari gustatzea, ondo pasatzea eta disfrutatzea espero dugu".

Etxarri Aranazko Abesbatzaren zuzendaria Javi Igoa izango da. Etxarriarrak kontatu duenez, Galeano abesbatzarekin harremanetan jarri zen eta koralarren batzordeak parte hartzea erabaki zuen. "Guretako gauza berri bat zen, eta musika mota berri bat probatzeagatik. Gainera, geroz eta zailagoa da kontzertuak ateratzea eta kontentu gaude horrelako handi bat egiteagatik". Metal talde batekin aritzea "oso berria" dela esan du Igoak.

Uztailen hasi ziren kontzertua prestatzen: "Teorian udan bi hilabete festa, opor, izan behar genituen, baina uztailen bost entsegu extra egin genituen partiturak irakurtzeko; gero behin irakurrita errazagoa delako dena perfektionatzea". Berak hartu zuen zuzentzeko ardura: "Urtarrilean Alicia Armendariz zuzendariak eszedentzia hartu zuen eta beste zuzendari bat etorri zen, baina uda hasieran esan zigun bere lanagatik eta abarregatik utzi behar zuela". Xabi Garziandiak hartu behar zuen kargua, "baina oso lanpetuta zegoen eta entsegu extra horiek nik eman nituen". Proiektuarekin bera hasi zenez jarraitzea erabaki zuten, "beste proiektu bat Xabik egin du, eta hirugarren bat, Eguberrietako kontzertua, bion artean egingo dugu".

Hasieran "beldurrarekin eta urduri" hartu zuen kontzertuan zuzentzeko erronka, "40 bat pertsona zure aurrean, asko ezezagunak...". Abesbatzako kideak oso ongi portatu direla esan du, "eta ni dena ongi egiten saiatu naiz".

Diabulus in Musica taldeko kideek azaldu bezala, abesbatzako zuzendariak kaskoekin eta metronomoarekin zuzendu behar dute melodiak ongi eraman ahal izateko. "Musikariak earlerra eramaten dute, eta haien beharren arabera jartzen zaie entzun nahi dutena". Zuzendariak, beraz, ez dute abesbatzak kantatzen duena entzungo, eta "grabazio" bat entzungo dutela esan du Igoak: "zuzendu beharko dut eta ahoak mugitzen ikusiko ditut, baina ez dakit zer ari diren abesten". Horregatik "errazago eta aldi berean zailago" izango dela esan du etxarriarrak. Konfort zonaldekan kanpo egongo direla

esan du Galeanok, eta Arroyo-rendako "esperientzia berria" izango da, "nahiz eta hasieran beldur pixka batekin ibili, azkenean *kaña* bat izan da. Oso interesgarria".

Etxarri Aranazko Abesbatzak 34 bat kide ditu, Erkudengo Ama Abesbatzak 30 bat, guztira, 60 abeslari baino gehiago, eta horri Diabulus in Musica taldeko kideen instrumentuak -gitarra, baxua, bateria...-, gehitu behar zaio. Hori guztia, Iortia kultur guneko eszenatokian. "Horrelako kontzertu bat egiteko ez da ohiko eszenatoki bat, eta gainera publikoa eserita egongo da. Ez da normalena". Galeanok azaldu duenez, denak sartzeko "irudimen asko eta planifikazio handia behar izan dute: "Egun batean aretoa ikusteko gelditu ginen eta Gorka konturatu zen eszenatokiak askorako ematen zuela, dirudiena baino aukera gehiago zituela". Bi abesbatzak banaka agertuko dira, eta beste kanta bat gizonen-koen ahotsek interpretatuko dute. Sorpresak ere egongo dira, tartean abesti batean ere dantzatuko dira. "Leire Bujanda dantzariari esan nion aspaldiko beste proiektuarekin, Keu Agirretxea ekarri nahi nuenean, baina proiektu hori ez zenez atera, honetan ere sartu dut; bi egongo dira". Baldosaren dantza egin beharko dutela abisatu die, "oso toki gutxi dagoelako".

Arrakastatsua

Abesbatzen parte hartzearekin Galeanok susmoa zuen kontzertu arrakastatsua izango zela, "kide asko dira eta senide eta lagunekin...". Sare sozialetan bideo parte bat egin zituen "eta asko mugitu ziren"; sarrerak sagai jarri eta gutxira agortu ziren, "kartelak egin nituen, baina ez zidan zintzilikatzeko ere denborarik eman". Ikuskizunaren beste saio bat ematea pentsatu zuten, "baina gehiegi zen, eta ongi egiteko eta jendea disfrutatze hobe bakarria egitea". Iortia joango den eta metal kontzertuetara ohituta ez dagoen jendearendako aholku bat du Galeanok: "Grabeak asko igotzen

**"IKUSKIZUN BEREZIA
IZANGO DA; NIRI
GUSTATZEN ZAIDANA
SAKANAKO JENDEARI
OPARITU NAHI DIOT"**

dira eta belarriak estaltzea gomendatzen dut. Horrelako kontzertu batera joaten naizenean, bafleen ondoan egoten naizenez, neurrira egindako tapoiak eramaten ditut. Baina bihar etortzen denari algodoiak jartzea gomendatzen diot; bertan ere jarriko ditut, badaezpada".

Beste saio bat ematea, beraz, "konplikatu zela esan du Galeanok, "logistika, ordutegiak...". Sarrerak agortu zirenean "entsegu aldetik gauzaren bat zintzilik zegoen oraindik, eta ez nuen gehiago presionatu nahi". Baina datorren urtean esperientzia errepikatzea gustatuko litzaioke antolatzaileari, "izugarria izango litzateke". Izan ere, jendea gogotan gelditu dela nabarmendu du: "Europako beste herrialde batzuetatik etorriko da jendea, Ingalaterra...". Ikuskizun oso berezia dela gaineratu du, "abesbatzak jarri musika korala egiten duen ikuskizun batean, normalean ezin dituztenean eraman, harrigarria da". Bakarria izango da. "Horrelako bandek jaialdi oso handietan parte hartzen dutenean egiten dituzte ikuskizun handi hauek, baina oso puntuala izan ohi da". Behin, duela hamar urte, taldekideek esan bezala. "Pentsatu nuen, bada Sakanan izango da". Sakanarako opari bat dela esan du Galeanok: "Nik opari bat egiten dudanean da opari bat gustatzen zaidana zuzendariak. Niri gustatzen zaidana, Sakanako jendearendako".

Aurreko urtearen bukaera hasi zen Galeano honekin bueltaka. "Data otsailean hartu genuen, eta hasiera batean urrian izan behar zen". Instituzioen eta eragileen partetik laguntzarik ez duela jaso ez du, "enpresetan, erakundeetan eta abarretan laguntza eskatu nuen, baina bakarrik Iñaki Oraa Gruas Oraa enpresatik jaso dut; aretoa alokatze hobe eman du". Soinu eta argi teknikariak ere "estutu" direla esan du, "Iortx Iortia teknikiarekin batera Iban Mago Itzal bezala ezagutzen dena egongo da argi eta soinu". Proiektua aurrera eramateko "edozer" egin duela esan du Galeanok. "Kantak jendea laguntzera etorriko da ere, eta sarrerarik gabe gelditu den baten bat atzean laguntzen egongo da, eta horrela ikusteko aukera izango du ere". Galeano publikoaren artean egongo da, disfrutatzen, eta dena grabatzen.

"Guk egiten duguna artisautza lanak dira"

Ostegunetan biltzen dira Erkuden Izagirre, Gema Agirre eta Juana Mujika ziordiarrek, Kontxi eta Mari Luz herrikideekin eta Arabatik etortzen diren Zuriñe eta Isabelekin jostintza tailerrean. Bihar, Santa Luzia, haien eguna izanen da

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

1 Noiz hasi zineten jostintza tailerren?

Duela urte asko; Gema, esaterako, 2010. urtean; Isabelen ilobak 18 urte bete ditu eta jaio-berria zenerako arropak egin zizkion...

2 Eta tailerrera joan aurretik, egiten zenuten?

Gema Altsasura joaten zen eta Erkudene txikitatik ikasi zuen; Juanak korte eta konfekzio industrialak egin zuen, baina ez du zerikusirik. Hau lan guztiz artisaua da.

3 Zergatik hasi zineten?

Gustatzen zaigulako. Gemaren kasuan, esaterako, erretzeari utzi zion eta zerbait egiteagatik jostintza tailerrean hasi zen, laboreak egiten; hasieran dena gaizki egiten eta Maribel Mazkian irakasleak errieta egiten zigun. Egiten eta egiten ikasten da.

4 Zer nolako lanak egiten dituzue?

Denetarik. Oraintxe bertan nekazari jantzien alkandorak egiten ari gara, Isabelek kaiku bat egin du eta orain alkandorarekin dago, Zuriñe ere tapeteak



Jostun taldeko kide bat lanean. UTZITAKOA

egiten ari da, Juana kaiku bat, Gema Altsasuko kintoendako zinta bat eta kaiku bat... Kakorratz lanak beste ikastaro bat da, eta Gema doa. 16:00etatik 18:00etara jostintza tailerra, eta 18:00etatik 20:00etara kakorratza.

5 Zer behar da labore hauek egiteko?

Hasteko, gogo. Badago jendea psikologoa ordaintzen duena, eta gu jostintzara joaten gara. Horrelako herri txikietan beharrezkoak dira horrelako gauzak egitea. Astean behin elkartu eta orratzari ematen diogun bitartean, mingainari ere ematen diogu. Sozializatzeko modu bat da. Eta egiten duguna ere ongi egiten dugu, jakina. Pandemia garaian eten ez zen gauza bakarra izan zen; taldea banatu zuten eta toki handiago batean jarri, baina jarraitu genuen. Bestela, behin utzita, ez ginateke itzuliko.

6 Denak emakumeak?

Kakorratz ikastaroan gizon bat dago! Baina urte hauetan bakarra. Egia esan, ikastaro gehienetan horrela izaten da, pilatesen hamar pertsonatik zortzi emakumezkoak gara.

7 Zer nahiago duzue eskuz edo makinaz josi?

Guk egiten duguna artisautza da. Agian piezaren bat muntatzeko makinaz egin behar dugu, baina bestela dena eskuz. Are gehiago, zerbait konpontzeko josi behar badugu ez dugu egiten! Botoi bat josi behar dela, poltsiko bat konpondu, praken azpikoa hartu... Uzten joaten gara.

8 Zer da gehien egitea gustatzen zaizuen?

Gauza bat modu batean egiten da, eta beste bat beste modu batera. Denetarik egiten dugu, eta guztiarekin gustura gaude. Teknika bat baino gehiago gustatu ahal zaigu, baina denetarik egiten dugu.

9 Tailerretik kanpo egiten duzue?

Bai, etxean zerbait egiten dugu. Asteazkenean ere etxerik batean elkartzen gara, aitzaki gisa; baina egiten dugu.

10 Santa Luzia jostunen eta ikusmenaren zaindaria, ezta?

Martir bat zen, ez zuen ezkondu nahi, eta bere sakrifizioa begiak kentzea izan zen. Ziordian ermita bat zegoen eta festa oso garrantzitsua zen, ez bakarrik jostunendako, kanpoko jende asko etortzen zen ere. Gehienbat jostunak eta begi arazoak zituztenak, eta Altsasutik eta Olazititik etortzen ziren; peregrinazio bat bezala zen. Baina jende asko biltzen zen. Altsasun ere bazkariak egiten ziren aspaldi.

11 Nola ospatzen zenuten? Eta orain?

Gure kasuan afari bat egiten genuen; ez dakigu noiz utzi genuen, pandemiaren aurretik, aspaldi. Ez genuen guk bakarrik egiten, kuadrilla gehiago biltzen ziren. Meza egiten zen eta gero afariak. Esanahi berezia zuen egun horrek. Festa berez ez zen desagertu; ermita errepidea egiteko bota zuten, baina irudia elizara eraman zuten eta meza egiten jarraitu zen. Festa egun bat zela nabari zen. Orain gazteek berreskuratu dute eta lau eguneko egitaraua egin dute. Guk tailerrean merendua egin dugu.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena _____
Abizenak _____
NA/IFZ _____
Helbidea _____
Herria _____
Telefono zenbakia _____
Emaila _____
Bankuko kontu korronte zenbakia:
ES _____



948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus

